

GRADU AMAIERAKO LANA

GURPILDUN AULKIKO SASKIBALOIAREN EZAGUTZA EUSKAL HERRIAN

Ane Etxezarreta Ayerbe

2016-2017



AURKIBIDEA

Orriak

| | |
|---|-----------|
| 1. SARRERA | 3 |
| 1.1. HELBURUAK..... | 4 |
| 2. GURPILDUN AULKIKO SASKIBALOIAREN EZAGUTZA | 6 |
| 2.1. GURPILDUN AULKIKO SASKIBALOIAREN EZAUGARRI FISIOLÓGIKOAK...7 | |
| 2.2. HISTORIA..... | 7 |
| 2.3. EUSKAL HERRIKO EGOERA | 8 |
| 2.4. ARAUAK, MOLDAKETAK ETA LEHIATZEKO BALDINTZAK | 9 |
| 3. GUPRILDUN SASKIBALOIAREN OROKORTASUNAK | 14 |
| 3.1. METODOLOGIA | 14 |
| 3.2. EGOERAREN ANALISIA | 17 |
| 3.2.1. Espainiar ligak | 17 |
| 3.2.2. Euskal herriko taldeak | 24 |
| 4. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA | 31 |
| 5. PROPOSAMENA | 34 |
| 5.1. PROPOSAMENAREN OINARRIAK..... | 34 |
| 5.2. PROPOSAMENAREN HELBURUA..... | 35 |
| 5.3. PROPOSAMENAREN GARAPENA | 36 |
| 5.3.1. Proposamenaren plangintza | 36 |
| 5.3.2. Proposamenaren egituraketa..... | 39 |
| 5.3.3. Proposamenaren pausuak | 41 |
| 5.3.4. Proposamenaren baliabideak | 44 |
| 5.4. PROPOSAMENAREN ANALISIA | 50 |
| 5.5. PROPOSAMENAREN ONDORIOAK | 52 |
| 6. BIBLIOGRAFIA | 54 |

1. SARRERA

Gurpildun aulkiko saskibaloia, Euskal Herrian ez da oso ezaguna. Gure gizartean ez dago oso barneratua eta ez dugu honi buruz berri edo informazio askorik ikusten edo entzuten. Ondorioz, nire helburua, gurpildun aulkiko saskibaloiarri buruz, ahalik eta zehaztasun handienarekin, informazio ahalik eta gehien jasotzea eta hau zabaltzea eta ezagutzera ematea da. Honez gain, informazio eskasia dela eta, informazio honi buruzko kritika bat ere burutzea.

Ondoren aurkeztuko dudana, Gurpildun Aulkiko Saskibaloiarri buruzko bilaketa bibliografikoa izango da eta nire gai hau, Euskal Herrian zentratzen da, hau da, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan hain zuzen ere.

Esan beharra dago, gainontzeko ez jakitunak bezala, ni ere ez jakituntzat hartzen nuela nire burua. Honen ondorioz, lan honetan jardutea, nire hezkuntzarako arlo polita eta aberasgarria izan daitekeela iruditu zait. Honez gain, ezaguna ez dela eta, ezagutzera ematea gustatuko litzaidake eta honekin batera, kirol modalitate hau sustatzea ere.

Sustapena aurrera eramateko, lanaren amaieran proposamen bat azaltzen dut, etorkizunean aurrera eraman ahal izatea posible izatea espero dudana.

Lanaren mamiari dagokionez, arazo batzuk sortu zaizkit eta ondorioz, hainbat zailtasun izan ditut.

Adibidez, informazioa aurkitzerako garaian, hasiera batean gehienbat, sarean bilatzeko asmoarekin hasi nintzen eta honez gain, informazio gehigarririk behar izango banu, modalitate honi buruz jakitun diren edo bertan jarduten duten pertsonen laguntza bilatuko nukeenaren pentsamendua nuen. Sarean ordea, arazo batekin topatu nintzen. Informazio bila hasi nintzen heinean, informazio eskasiaz ohartu nintzen.

Kasu honetan, interneten aurki nitzakeen artikulua edo bestelako interneteko informazio gutxi horrekin, nire lan hau aurrera eramatea ia ezinezkoa litzateke.

Gauzak horrela, aipaturiko bigarren aukerari eutsi behar izan nion, eta pertsona horien bitartez lortu ahal izan nuen behar izan dudan informazio gehigarri gehiena.

Hala ere, aipatu beharra dago, sareko informazio eskasiaz gain, sarean aurkitutako web orri baten kasuan, Bera Beraren web orrian hain zuzen ere, sartu eta orokorrean Gorpildun Aulkiko Saskibaloiarri buruzko informazio eskasia izugarria izan da. Taldeen atalean sartu eta inolako informaziorik ez dut aurkitu. Taldeei buruzko informaziorik ere bat ere ez. Ondorioz, talde honi buruzko informaziorik jasotzea ia ezinezkoa egin zait. Beste talde batzuen kasuan ordea, beraien web orria askoz ere landuagoa da eta informazioa oso gutxi izan arren, hein batean erabilgarria izan da.

Elkarrizketei dagokionez, pertsona hauekin kontaktuan jartzen saiatu naizenean, hiru pertsonak soilik eman dizkidate erraztasun gehienak behar izan dudan informazioa jasotzeko, baina beste batzuegana gerturatu (e-mailez) eta erantzunik ez dut jaso, honek nire lana atzeratu eta zaildu egin didalarik.

Azkenean, beste bide batzuetatik, hala nola, lagun baten bidez bidalitako korreo baten bidez, kontaktuan jartzea lortu ez nuen pertsona horietako batekin kontaktuan jartzea lortu zuen, jasotako informazio hori ondoren niri zabalduz.

Esan beharra dago, zailtasunak izateaz gain, lan oso aberasgarria izan da, kirol modalitate honi buruz asko ikasi dudalako eta etorkizun baterako gutxi gora-behera nondik mugitu behar den ikasten lagundu didalako.

Gauzak horrela, nire lana ondorengo honetan geratu da.

1.1. **HELBURUAK**

Aipatu bezala, lan honen helburua, Euskal Herrian, Gorpildun Aulkiko Saskibaloiarren egoera ezagutzera ematea da. Honetarako, Euskal Herrian zentratuz, bertako klubetako informazioa jasoko dut eta instalakuntza egokiak diren edo ez aztertuko dut. Klubei dagokienez ere, bakoitzak dituen aisiari bideraturiko eta sentsibilizazio programei dagokien informazio gehigarria ere aztertuko da.

Honez gain, lehiatu ahal izateko, jokalariek gaintu beharreko neurriak sakonki aztertuz, garbi adieraziko ditut.

Amaitzeko, egoera aztertuta eta ateratako ondorioak ikusita, Gorpildun Aulkiko Saskibaloia bultzatzeko egokia iruditzen zaidan proposamen bat aurkeztuko dut.

Gauzak horrela, nire helburuak hauek dira:

- Gorpildun Aulkiko Saskibaloia zer den jakinaraztea.
- Non jokatzen den. Zein klubak dauden.
- Parte hartu ahal izateko bideak. Erraza den, zailtasun asko dauden.
- Zein lehiaketetan parte hartzen duten Euskal Herrian aurkitzen diren klub hauek.
- Kirol modalitatea sustatzeko proposamena.
 - Nola hurbildu.
 - Zer egin ezagutarazteko.

2. GURPILDUN AULKIKO SASKIBALOIAREN EZAGUTZA

Gurpildun Aulkiko Saskibaloia, aldizkako kirol bat da, bertan maiz, intentsitate altuko sprintak eta azelerazio eta desazelerazio bizkorrak konbinatzen diren intentsitate ertaineko eta baxuko kirol bat da, zeinetan, aipaturikoarekin, kantxan tokia mantentzea edo posizio egoki bat lortu nahi izaten den (Molik et al., 2010, Iturricastillo, A., Granados, C. eta Yanci, J., urtarrilak 12, 2015an aipatua).

Gurpildun aulkiko saskibaloia, urritasun funtzionala duten pertsonen parte hartzen duten kirolen artean famatuena da (Milanese, C., Zancanaro, C eta Cavedon, V., azaroak 25, 2015). Gutxi gora-behera, ehun herrialde ezberdinetan lehiatzen da eta 30,000 parte hartzaileetara hazi da zifra (Milanese, C., Zancanaro, C eta Cavedon, V., azaroak 25, 2015). Jokoa ulertzen duten ikusleen gorakada ere nabarmena izan da, baita organizazio kopuruena, honekin batera, entrenamendu fisiko eta entrenatzaileen jakituria handiagoa ere bada. Azkenik, sailkapenari dagokionez, honen egituraketan hobekuntzak ere eman dira (Milanese, C., Zancanaro, C eta Cavedon, V., azaroak 25, 2015).

Modalitate hau, Gurpildun Aulkiko Saskibaloiko Federakuntza Internazionalaren (International Wheelchair Basketball Federation, IWBF) jurisdikziopean jokatzen da (Milanese, C., Zancanaro, C eta Cavedon, V., azaroak 25, 2015). Gainera, IWBFak onartutako urritasun funtzionalen bat izatea beharrezkoa da jokatu ahal izateko (Iturricastillo, A., Yanci, J., Barrenetxea, I. eta Granados, C., 2016). Internazional mailan jokatu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da beheko gorputz adarreko guztiz senda ezina den ezgaitasunen bat, hala nola, paralisia, anputazioa, partzialetik osorako bidean dagoen alkalosi articularra eta abar (Szyman, R. J., Ito, G., Garner, D., Muñoz, B. eta Reed, J., 2014). Federakuntza honek sortu du ondoren azaltzen dudan kirol modalitate honetako parte hartzaileen urritasun funtzionalaren araberako sailkapena.

Gauzak horrela, ezagunena den saskibaloiarekin alderatutako ezberdintasun nagusia, gurpildun aulki manual batzuk erabiltzen direla eta funtzionaltasunaren araberako sailkapen bat dutela IWBFak ezarria eta kontrolatua dela da (Ferro, A., Villaceros, J. eta Pére-Tejero, J., 2016).

2.1. GURPILDUN AULKIKO SASKIBALOIAREN EZAUGARRI FISIOLGIKOAK

Kirol modalitate honetan parte hartzen dutenek, errendimendu egoki bat lortu ahal izateko, abiadura, arintasun, indarra, potentzia, erresistentzia, teknika eta taktika gaitasun optimoak izan behar dituzte (Gil, S.M., Yanci, J., Otero, M., Olasagasti, J., Badiola, A., Bidaurrezaga-Letona, I., Iturricastillo, A. eta Granados, C., uztailak 10, 2015).

2.2. HISTORIA

Gurpildun aulkiko saskibaloien jatorria E.E.U.U. tik dator. Zehazki, I. Mundu Gerraren ondoren datorkigu kirol modalitate honen jatorria (Así es... el baloncesto en silla de ruedas, 2015). 1946. urtean konkretuki, saskibaloia jokalaririk ohi baten eskutik, estatu batuarra hau, gerratean zauritua suertatu ondoren, talde kirol bat praktikatu ahal izateko eta zaurituak atera zirenezako errehabilitazio bide dibertigarri bat izan zezaten sortu zuen. Kirol modalitate honen lehen pausuak, aipatu bezala, Estatu Batuetan eman ziren eta 1952an, lehen lehiaketa internazionala ospatu zen, "Stoke Mandeville Games" deiturikoa hain zuzen ere (Hindawi, O.S., Orabi, S., Al Arjan, J., Judge, L. W., Cottingham, M. eta Bellar, D.,M., 2013).

Urte batzuk beranduago, 1969an hain zuzen ere, Espainiara iritsi zen. Orduetik, Espainian aurrera pauso handiak eman direlarik. Honez gain, aipatu beharra dago, kirol hau, 1960tik aurrera, Erromako Joko Paralimpikoen geroztik, kirol paralimpikotzat ezagutzen dela (Baloncesto para parapléjicos, n.d.).

Esan beharra dago, gainontzeko kirol gehienak bezala, hasiera batean, kirol modalitate hau, gizonezkoek soilik zuten parte hartzeko aukera eta hogeitatu urte beranduago, emakumeak jokatzeko hasteko aukera zabaldu zen (Vanlandewijck, Y. C., Evaggelinou, C., Daly, D. J., Verellen, J., Van Houtte, S., Aspeslagh, V., Hendrickx, R., Piessens, T., eta Zwakhoven, B., 2004).

2.3. EUSKAL HERRIKO EGOERA

Gurpildun Aulkiko Saskibaloari buruzko oinarrizko orokortasunak aipatu ondoren, Euskal Herrian, kirol modalitate hau, laburki nola aurkitzen den aztertuko dut.

Aipaturiko kirol hau, ez da asko praktikatzen den kirol modalitate bat, beraz, oso puntu zehatzetan soilik jarduten da.

Esaterako, Gipuzkoako, Bizkaiako eta Arabako hiriburuetan praktikatzen da, hau da, Donostian, Bilbon eta Gasteizen. Gainera, Euskal Herrian indar gehien duten hiru talde topa ditzakegu eta horietako bakoitza, aipaturiko Euskadiko hiriburu ezberdinetan kokatzen dira.

Hauetz gain, aurten, Lasarten Klub/Erakunde berri bat sortu da, zeinetan, ez diren beste talde edo klubak aurka lehiatzen, soilik, jendearen inklusibitatea bilatzen dute, hau, irizpide garrantzitsuena izanik. Klub honek, ez du elitezko talderik eta kirol mota ezberdin guztiak jorratzen ditu. Aipaturiko klubak ondorengo hauek dira (Iturricastillo, A.,2017, elkarrizketa):

- BSR Salto Bera Bera (Donostia).
- Bidaideak Bilbao BSR (Bilbo).
- Caja Vital Zuzenak Fundazioa eta Zuzenak BSR (Gasteiz).
- Ostadar Inklusioa (inklusibitatera bideratutako Ostadar klubaren sekzio berria, ez du lehiatzen).

Ikus daitekeen bezala, Euskal Herrian, kirol modalitate honetan jardun ahal izateko, aukera oso gutxiarekin aurkitzen gara. Alde batetik, talde eskasiengatik eta hauen kokalekuarengatik, hiriburuetan kokatzen direnez, bertara mugitu beharra derrigorrezkoa da, honekin, aukerak murrizten direlarik.

Beste alde batetik, lehiaketara bideraturiko klubak dira, hau da, errendimendura, beraz, klub hauen parte izateko, medikuaren ziurtagiria beharrezkoa da, honek zera esan nahi du, edozeinek ezin duela parte hartu urritasun funtzionalik izan ezean (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Zorionez, urte honetan sortu den Ostadar klubarekin, errendimenduari begiratzen ez dion klub bakarra dugula ikus dezakegu, beraz, honekin parte hartzearen abanikoa zabaldu egiten da.

Nafarroari aipamen garrantzitsu bat egin beharra dago. Bertan, garai batean, Gorpildun Aulkiko Saskibaloiko klub bat existitzen baitzen. Duela urte batzuk ordea, desagertu egin zelarik. Gaur egun, Nafarrek, modalitate honetan errepresentaziorik ez dute eta jokatzeko gertuko hiriburuetara desplazatu behar izaten dira (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

2.4. ARAUAK, MOLDAKETAK ETA LEHIATZEKO BALDINTZAK

Arauei dagokionez, ezaguna den ohiko saskibaloia berdinak dira, nahiz eta aldaketa eta moldaketa batzuk dauden. Berdinak diren arauei dagokionez, aipagarrienak direnak honako hauek dira (Así es... el baloncesto en silla de ruedas, 2015):

- Kantxaren neurriak berdinak dira (28x15).
- Garaiera berdineko saskiak 2,30m. dituzte.
- 10 minutuko 4 laurden dituzte jokatzeko.
- Deskantsuak 2 minutukoak dira laurden bakoitzaren artean eta 15 minutukoak lehenengo zatia eta bigarrenaren artekoak.
- 5x5 jokatzeko da eta talde bakoitzeko, gehienez, 12 pertsona eta gutxienez 8k eman dezakete izena partida bat jokatu ahal izateko (Baloncesto para parapléjicos, n.d.).

Kirol modalitate honi dagozkion berezko arauei dagokienez, ondorengo hauek aipatu beharko genituzke (Así es... el baloncesto en silla de ruedas, 2015):

- Baloia duen jokalaria, aulkiko gurpilei bi aldiz eragin ondoren, derrigorrez, punpa egin beharko du, bestela **urratsak** izango lirateke.

- Gerriko baten bitartez, **hankak** aulkira, **gutziz lotuak** egongo dira, honela, aulkiak, jokariaren hanken funtzioa hobetoago beteko luke.
- Aulkiek 3 edo 4 **gurpil** izan ditzakete.
 - 2 alboetan, handienak direnak.
 - 2 txiki aurrean kokatzen direnak. Hauek oreka errazago mantentzea laguntzen dute (Baloncesto, 2012).
- Aulkian dagoen kuxinak, gehienez, 10 zentimetro izan behar ditu, baina, 3.5, 4.0 eta 4.5eko puntuaketa dutenek, gehienez, 5 zentimetrokoa izango dute (Baloncesto, 2012).
- **Taldeak**, estatuan, hau da, klubek jokatzen dutenean, mixtoak izateko aukera dago. Aldiz, nazioen artean jokatzen diren partidetan, hau da, selekzioekin jokatzen denean, bereizketa egiten da, neskak alde batetik eta mutilak bestetik (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).
 - Klubek jokatzen duten garaian, emakumeren bat zelaian egongo balitz, “discriminación positiva” deitzen delakoa aplikatzen da fisikoki aldea pairatzen denaren arrazoiarengatik. Honekin, berezko sailkapenean, 3 puntu dituen emakume batek, mutilen aurka jokatzen ari bada, 1 puntuko sailkapena izango du, hau, emakumeak taldean dituen taldeentzat onuragarria izanik.
- Parte hartu ahal izateko **urritasun funtzional** bat izatea derrigorrezkoa da (Baloncesto para parapléjicos, n.d.). Ez dago zertan %33ko elbarritasunik izan behar, urritasun funtzional bat izatearekin parte hartzea posible izango litzateke (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).
- **Urritasun funtzionalaren ziurtagiria**, medikuen eskutik lortzen da. Horretarako, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioak jarritako neurrien arabera, jarraitu beharreko pausuak honako hauek dira (GKEF, 2017, elkarrizketa):
 - GKEFk hitzartuta dituen zentroetara bidaltzen dituzte ziurtagiria nahi duten pertsona horiek, bertan esfortzu frogatua egiteko.

- GAI edo EZ GAI den ondorioztatzen da zentro hauetan esfortzu froga egin ondoren. GAI izateko gainditu beharreko neurriak honako hauek dira: oinarrizko esfortzu froga bat, historia pertsonala eta familiarra, defizita edo ebaluazio funtzionalaren jarraipena eta arnas eta bihotz azterketa.
 - **Oinarrizko esfortzu froga:** osasuna aztertzeko froga, hau da, kirola egiteko gai den edo ez ziurtatzen duena. Batez ere, elektrokardiograma (EKG) eta egindako lana baloratzen direlarik, orokorrean eta espezifikoki, lasterketa edo proba batean parte hartzeko gai den esateko. Horretarako, egokiena de ergometroan egiten da eta protokoloa edo mailakatu jarraia edo aldapan izaten da (Arratibel, I., 2017, elkarrizketa).
 - **Historia pertsonala edo familiarra:** “anamnesia” deritzona (Arratibel, I., 2017, elkarrizketa).
 - Familiakoei:Zuzeneko familikoei, galderak egiten zaizkie, zein gaixotasun pairatu dituzten jakiteko eta ea nolabait, pazienteari pasatzeko aukerarik dagoen.
 - Pazienteari: zein lesio, gaixotasun, ebakuntzak eta abar izan dituen galdetzen da. Honekin, etorkizun batean edonolako eraginik izan dezakeen jakiteko izaten da.
 - **Defizita edo jarraipena ebaluazio funtzionalari buruz:** Kasu honetan, defizitaren ebaluazioa edo ebaluazio funtzionalari buruzko jarraipen bat egitea esan nahi du. Gakoa zera da, zein defizit mota duen, zein mailakoa eta denbora aurrera joan ahala, zein aldaketak jasaten diuen jakitea da, egoera urte batetik bestera asko aldatu baitaiteke (Arratibel, I., 2017, elkarrizketa).
- GAI bada, zentroan bertan, jokalaria lehiazeko baimena ematen dion ziurtagiria eskura ematen zaio.

- Ziurtagiri hori GKEFko bulegoan aurkeztu behar dute eta federakuntza honetatik, Euskadiko Federakuntzara bidaltzen da hauek lizentzia tramitatzeko. Azken federakuntza honek lizentzia tramitatu ahal izateko, ziurtagiriaz gain, ondorengo dokumentu hauek gehiago eskatzen ditu; NAN tamainako atera berria den jokalariaren argazkia, NANaren fotokopiarekin bat, minusbaliotasun-ziurtagiria, osasun-ziurtagiria (esfortzu froga egin ostean), kirol egokituaren federazioaren inprimakia betea eta lizentziaren kostea.
- Aipaturiko dena ondo egongo balitz, jokalari honen lizentzia tramitatzeko hasiko litzateke.
- Gaitasun funtzionalaren eta urritasun funtzionalaren mailaren arabera, 1.0 eta 4.5 bitarteko puntuaketaren **sailkapen** bat egiten da. Izena eman duen jokalari bakoitzak, zenbaki horien bitarteko puntuaketa bat izango du (Así es... el baloncesto en silla de ruedas, 2015). Puntuaketa, potentzia funtzionalean eta saskibaloiko jarduera espezifikoaren eginbeharrak egiteko duten gaitasunaren arabera da (Vanlandewijck, Y.C., Evaggelinou, C., Daly, D. D., Van Houtte, S. Verellen, J., Aspeslagh, V., Hendrickx, R., Piessens, T. eta Zwakhoven, 2003). 1.0tik gero eta gertuago, gaitasun funtzional edo urritasun funtzional maila altuagoa izango du eta alderantziz, 4.5etik gertuago, ez du ia urritasun funtzionalik izango. Gainontzekoek baino gaitasun funtzional handiagoa izango dute (Así es... el baloncesto en silla de ruedas, 2015).
- Kantxan dauden talde bakoitzeko 5ek, guztira, nahi den modura nahasturik, gehienez 14 puntu bete beharko dituzte (Así es... el baloncesto en silla de ruedas, 2015).
- Aulkiari dagokion edozein zatiak, kanpoko marra ukituko balu, "kanpo" izango litzateke (Baloncesto, 2012).
- Jaurtiketetan, hiruko marra, jaurtiketa libreko marra eta abar, aurreko gurpil txikiek zapaltzea edo gaintzea posible izango litzateke (Baloncesto, 2012). Alboko gurpil handiek ordea, ezingo lukete zapaldu ere egin (Baloncesto, 2012).

- **Hasierako saltoaren sakea**, erdiko zirkulutik, partida hastean eta bigarren zatiaren hasieran egiten da. Gainontzeko bi laurdenetan, sake bakoitza, talde ezberdin batek egingo du (Baloncesto, 2012).
- Partidan zehar, momenturen batean, talde batek 50 puntuko aldea lortuz gero, partida amaitutzat ematen da. Jarraitzea erabakiz gero, saskiratzeak ez lirateke kontatuko, baina bai faltak eta gainontzeko gauzak (Baloncesto, 2012).

Gurpildun aulkiko saskibaloian, blokeoek garrantzi handia dute, batez ere, 10 aulki aldi berean jokatzen ari direla eta, oso espazio txikian jokatzen dutelako. Blokeo onargarri bat izateko, aulkiaren albo batekin blokeatu daiteke, aulkiaren aurreko zatiarekin beste jokalariekin joz gero ordea, falta izango litzateke. Azkenik, oso garrantzitsua da gurpildun aulkiaren maneiua onartzea eta aldi berean jokoa irakurtzea, batez ere blokeotatik erraztasunarekin aterata ahal izateko (Baloncesto para parapléjicos, n.d.).

Honez gain, adituek diotenez, modalitate honen ikusgarritasuna, bere abiaduran eta indarrean oinarritzen da. Gurpildun aulkiekin jokatuz, jokoa abiadura handia eman diezaioketelako eta aldi berean, gurpildun aulkia mugitzeko, maneiuz gain, indar handia behar izaten delako (Baloncesto para parapléjicos, n.d.).


3. GUPRILDUN SASKIBALOIAREN OROKORTASUNAK

3.1. METODOLOGIA

Azterketa bibliografiko honetan, Euskal Herriko Gupildun Aulkiko Saskibaloia-aren egoera aztertuko dut. Orokorretik, hau da, Espainian, zein liga aurkitzen diren eta zeintzuk jokatzeko dutenetik, espezifikora joko dut, hau da, Euskal Herrian dauden taldeak eta eskaintzen dituzten aukera eta zerbitzuak aztertuz.

Zehatzago esanda, Euskal Herriko probintzietan, kirol modalitate hau, zelan aurkitzen den aztertuko dut, hala nola, modalitate honetan lehiatzen ari diren zein talde dauden eta non kokatzen diren, non jokatzeko den eta jardura hau burutzen diren instalakuntzak egokituak dauden edo ez, esaterako; aldapak, igogailu egokituak eta abar.

Artikuluak aukeratzeko jarraituriko pausuak ondorengo eskema eta azalpenetan azaltzen da:



Bilaketa bibliografikoko eskema hau burutzeko, egin ditudan pausuak ondorengo hauek dira. Hiru datu-base erabili ditut bilaketa bibliografiko hau egiterako garaian eta datu-baseak, Pubmed, Dialnet eta SPORTDiscus izan dira.

Bilaketa, orokorretik espezifikora bideratu dut. Lehenik eta behin, datu-base guztietan “*wheelchair*” hitza bilatu dut, guztira 11051 artikulua bilatu ditudalarik. Horietatik 5415, Pubmed datu-basekoak dira, 150 Dialnetekoak eta 5486 aldiz, SPORTDiscusekoak. Hau burutzeko, Pubmeden kasuan, “*wheelchair*” hitza jarri dut eta “*Title/Abstract*” aukeraz baliatuz, artikuluen aurkikuntza zehatzagoa egiten lagundu dit. Aipatu dudan aukera hau, Pubmeden artikulua aurkitzeko egin ditudan pausu guztietan erabili dut.

Dialneten kasuan, honelako aukerarik aurkitu ez dudanez, soilik “*wheelchair*” hitza jarri eta zuzenean aipaturiko artikulua guzti horiek azaldu zaizkit. Azkenik, SPORTDiscusen, “*wheelchair*” hitzarekin batera, “*AB Abstract*” aukera aukeratu dut. Honekin 5486 artikulua lortu ditut.

Gertatzen dena zera da, horietatik askok ez dira nire lanerako baliagarriak, beraz, erabilgarriak ez diren artikuluen filtroa “*basketball*” hitzarekin pasa dut. Arrazoia honako hau da, Gorpildun Aulkiko kirol, jarduera edo bestelako gauza asko aurki daitezkeela, baina nire helburua Gorpildun Aulkiko Saskibaloia izanik, bereizketa hau egitea erabaki dut. Kasu honetan, filtroa pasa eta egokiak iruditu eta aukeratu ditudan artikulua 1114 izan dira, baztertuak gainontzeko denak izanik.

Datu-baseei dagokionez, aipaturiko filtro hau pasa ondoren, Pubmed datu-basean, 159 artikulurekin geratu naiz, 25 Dialneten kasuan eta SPORTDiscusen kasuan ordea, 930 artikulurekin. Hiru datu-baseetan, lehen aipatu ditudan pausu berdinak eginez, soilik, “*basketball*” hitza gehitu diet.

Dialneteri dagokionez, aukeraketa horiek egiteko aukerarik ez dagoenez, zuzenean “*wheelchair basketball*” bilaketa berria burutu dut.

Orain arteko pausuak, nire lanera nahiko bideratuak aurkitzen direla eta, ondorengo hau, eskuragarri ditudan artikulua bilatzea izan da, hau da, dohainik saretik zuzenean deskargatzeko edo ikusteko aukera dudana artikuluen aukeraketa

izan da. Guztira lortu ditudan artikuluak, 614 izan dira. Filtro honekin, Pubmeden kasuan, artikulu baliagarriak, 26 izatera jaitsi da. Dialneten kasuan, 25 artikuluetara eta SPORTDiscus datu-basean, 930 artikuluetara murriztu da.

Jada pausu guzti hauek burututa, nire laneko helburuetan zentratu naiz, hau da, nire lanak, Euskal Herriko Gorpildun Aulkiko Saskibaloiori buruz hitz egiten duenez, bilaketa guztietan “*basque country*” hitza txertatu dut. Batetik, Dialneten, zuzenean “*wheelchair basketball*” hitza gehitu diodalarik. Bestetik, Pubmed eta SPORTDiscusen kasuan, orain arte jarraitutako pausu berak jarraituz, “*basque country*” hitza gehitu diet. Kasu honetan, emaitzarik eta artikulurik gabe geratu naiz.

Azkenik, hiru datu-baseetatik, aipaturiko “*basque country*” hitza idatzi eta bilaketa honen ondoren, lortu ditudan artikulu guzti horiek aztertu eta zeinetan Gorpildun Aulkiko Saskibaloiori buruzko definizio zehatz edo orokorra edo GASari buruzko informazio orokorra, zein artikuluetan azaltzen den aztertu dut. Gauzak horrela, baliagarriak iruditu zaizkidan definizio edo orokortasunak zekartzan artikuluak, Dialnet datu-basean, 2 artikuluetara murriztu da, Pubmeden kasuan, 6 artikulu eta SPORTDiscus datu-basean, 32.

Artikulu hauetatik hiru artikulu bikoiztuak, hau da, errepikatuak zeudenak, Dialneten aurkituriko 2 artikulu baliagarrietatik biak, SPORTDiscusen aukeratutakoak ziren. Pubmeden kasuan, aukeratutako 6 artikuluetatik, bat, oraingo honetan ere, SPORTDiscus datu-basean aukeratutako artikuluetako bat da. Gauzak horrela, bikoiztu gabeko eta baliagarriak izan zaizkidan artikulu guztiak, 37ra murrizten da.

Azkenik, lan honetarako soilik erabiliko ditudan artikuluak, orain arte aukeratu ditudan artikulu guztietatik, definizioa eta Gorpildun Aulkiko Saskibaloiori buruzko orokortasunak, hala nola, jokalarien urritasun funtzionalaren araberako sailkapena, GASaren egoera eta abarrari buruz batek baino gehiagok gauza bera errepikatzen dutela eta, baztertu egin ditut, errepikatutako guztietatik bat aukeratuz. Amaitzeko, errepikatuetatik bat aukeratzeaz gain, aipaturiko datu ezberdinak ere ematen dituzten artikulu guztiak aukeratu ditut. Gauzak horrela, 9 artikulurekin soilik geratu naiz.

3.2. EGOERAREN ANALISIA

3.2.1. ESPAINIAR LIGAK

Espainian, bi liga garrantzitsu jokutzen dira. Bata, “Ohorezko maila” dena eta bestea “Lehenengo maila” deitzen diotena (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

“Ohorezko mailari” dagokionez, aurrez aipatu bezala, Espainia mailako ligarik gorena da eta bertan talderik onenak, garrantzitsuenak eta indartsuenak parte hartzen dute. “Lehenengo maila” ordea, Ohorezkoaren azpitik dagoen liga da, futboleant, bigarren maila bezala ezagutuko litzatekeena hain zuzen ere.

Aipatu beharra dago, bai “Ohorezko mailan” eta bai “Lehenengo mailan”, Espainia osoan zehar dauden taldeek parte hartzen dutela, nahiz eta “Ohorezko mailarekin” alderatuta, “Lehenengo mailak” berezitasun bat duen (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Datu gisa, Espainiako maila gorena, guztiz profesionala da. Talde batzuk ez dute profesionaltasun hori guztiz betetzeko aukera, Zuzenak K.E. besteak beste, diru falta dela eta. Beste talde batzuetan, Gorpildun Aulkiko Saskibaloira dirua sartzen dela eta, taldeak profesionalak dira eta jokalariek batzuk 4.000€tik gora kobratzen dute, beraz, talde batzuk guztiz profesionalak direla esango genuke (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Zuzenak K.E. bezalako beste talde batzuk, dirua soilik, bidaien gastuetarako dute eta ez jokalariek ordaintzeko. Kirol egokitu guztietan bezala, bidaien kostua asko igotzen da. GASeko taldeen kasuan, autobusak egokituak behar dituzte eta hauen prezioa asko igotzen da.

Hori gutxi balitz, kanpoko partidetak, hotelak, talde hauek dituzten mugak direla eta, ezin dituzte edonolako hotelak erreserbatu, egokituak dauden hotelak izan behar dira eta horiek aurkitzeko, Espainian, gutxienez lau

izarretako hoteletara joan behar izaten dira, honek bidaien kostua nabarmen igotzen duelarik. Honen ondorioz, klub askok, soilik bidaiak ordaintzeko premia dute eta ez bidaiak eta jokalariei ere ordaintzeko aukera (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

3.2.1.1. Ohorezko maila

Goreneko liga honetan, 11 taldek parte hartzen dute eta aurtengo denboraldian (2016-2017), horietatik bi, euskaldunak izan dira. Jada amaitu den denboraldian parte hartu duten hamaika talde horiek honako hauek izan dira (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>):

- Mideba Extremadura.
- **Bidaideak Bilbao BSR.**
- **Fundación Vital Zuzenak.**
- CD Ilunion.
- Amivel I.F. Clínicas Rincón.
- Abeconsa Basketmi.
- Fundación Grupo Norte.
- Club Amfiv.
- Getafe BSR.
- BSR ACE Gran Canaria.
- BSR Amiab Albacete.

Ikus daitekeen bezala, Espainia osoko taldeak aurki ditzakegu, Vigotik hasita, Kanariar Iretara (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Txapelketa hau, gutxi gora-behera urrian hasten da, amaiera, maiatzaren amaiera aldera izanik.

Lehiaketak irauten dituen 8 hilabeteetan, jardunaldiak hileko ia asteburu guztietan jokaten dira. Atsedenaldirik bat edo beste aurki

dezakegularik. Atsedendien arrazoa, Gabonetako oporrak, Erregearen Kopako partidak eta lehiaketa internazionalak dira batik bat. Hala ere, badira beste arrazoiengatik izaten diren atsedendiak (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Liga hau, “Lehenengo maila” bezala, joaneko eta bueltako partidak jokatzeko dira. Denek, denen aurka bi aldiz jokatzeko dutelarik. Behin denek, denen aurka jokatu, bigarren bueltarako, joanekoan etxean jokatu zuen taldeak, bueltakoan, kontrako taldearen zelaian jokatzeko tokatuko zaio (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

ACBn gertatzen den bezala, Final Foura jokatzeko da, nahiz eta kasu honetan, soilik lehen lau sailkatuak jokatzeko duten. Honekin, ligako txapelketa zein den erabakitzen da. Bertan, partidua bakarrera jokatzeko diren finalerdiak, lehenengoa geratu denak, laugarren geratu denaren aurka jokatzeko du eta bigarrenak, hirugarren geratu denaren aurka (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Partida hauetatik, irabazleak ateratzen direnak, elkarren aurka finala jokatzeko dute eta galtzaileak, hirugarren eta laugarren postua. Txapelketa hau, denboraldia amaitu eta berehala egiten da, maiatzean hain zuzen ere (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Aipatu bezala, liga honetan parte hartzen dutenek, Erregearen Kopa jokatzeko aukera dute. Beraz, ligako sailkapeneko lehen zazpiak gehi kopa antolatu duenak, Erregearen Kopan parte hartu ahal izango dute (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Neurketak erabakitzen dituen zozketaren ondoren, partida batera jokatzeko dira, bertako irabazleak, final erdiak jokatzeko dituztelarik. Final erdiakoko garaileak, finala jokatzeko dute eta

galtzaileek ordea, hirugarren eta laugarren postua (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Honez gain, Txapelketa internazionalak ere badaude, lau txapelketa hain zuzen ere. Kasu honetan, bertan parte hartzeko, sailkapenean lehenengo 5ak sailkatzen dira edo txapelketaren bat antolatu duenak. Txapelketak honako hauek dira (Costas de Miranda, B., 2017, elkarrizketa):

- Challenge Cup.
- Andrea Vergawen.
- Willy Brynkman.
- Champion.

Txapelketa internazional hauek berezitasun handi bat dute. Aipatu bezala, sailkapeneko lehen bostak gehi antolatzailea sailkatzen dira. Futbolean, sailkapenaren arabera, txapelketa internazional batera edo bestera sailkatzen dira taldeak. GASen kasuan ordea, ez dira sailkapenaren arabera txapelketa batera edo bestera jokatzera joaten, baizik eta taldeak dituen puntuazioen arabera txapelketa internazional batera edo bestera joango dira (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Talde bakoitzaren puntuaketak, ez du ligako sailkapenean lortu dituen puntu kopuruekin zerikusirik. Talde batek, jokatu dituen txapelketa internazional kopuruaren arabera baizik, hau da, gero eta txapelketa internazional gehiago jokatu, puntuaketa handiagoa izango du taldeak (Iturricastillo, A., 2017 elkarrizketa).

Honez gain, taldean agertzen diren jokalarri internazionalak, hau da, beraien herrialdeko selekzioarekin, torneo internazional batean parte hartu duten jokalariek, taldeari puntuazio altuagoa emango diete, hau da, gero eta internazional gehiago, gero eta taldearen puntuazio altuagoa izango da, beraz, txapelketa internazional garrantzitsuago batean parte hartzeko aukera gehiago izango ditu (Iturricastillo, A. 2017 elkarrizketa).

3.2.1.2. Lehenengo maila

Lehenengo mailari dagokionez, “Ohorezko mailarekin” alderatuz, maila baxuagoko kategoria izateaz gain, aipaturiko berezitasuna zera da, liga hau, talde edo multzo ezberdinetan banatuta dagoela (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Talde hauek Espainian zehar, maila honetan parte hartzen duten taldeen kokapenaren arabera da. Hau da, taldeen gertutasunaren arabera, banatzen dira (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Multzoak honako hauek dira (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>):

- “Iparraldeko Multzoa”.
- “Ekialdeko Multzoa”.
- “Hegoaldeko multzoa”.

Aurtengo denboraldian, hiru multzoak egun berean hasi eta amaitu dute beraien arteko ligaxka. Lehen jardunaldia, azaro erdialdean da eta azkena, apirilaren amaiera aldera izaten da (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

“**Iparraldeko Multzoari**” dagokionez, sei talde ezberdin sartzen dira. Hauen kokapena, Espainiako Iparraldea da. Bertan, bi euskaldun aurki ditzakegu, bata Donostiko Salto Bera Bera eta bestea, BSR Zuzenak “B” gasteiztarra, azken hau, “Ohorezko mailan” aurkitzen den Fundación Vital Zuzenak taldearen harrobia hain zuzen ere. Gauzak horrela, multzo honetako taldeak ondoren hauek dira (Basket BSR,

Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa:

<http://bsr.feddf.es/>):

- Amfiv “B”, (Vigoko “Ohorezko mailako” taldearen harrobia.
- CAI Deporte Adaptado.
- Garmat Aviles.
- Servigest Burgos.
- **Salto Bera Bera.**
- **BSR Zuzenak “B”.**

Gauzak horrela, hauek izango lirateke “Iparraldeko Multzoa” osatzen duten 6 taldeak (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

“**Ekialdeko Multzoari**” dagokionez, aipatu bezala, zazpi taldek parte hartzen dute. Kasu honetan, Espainiako ekialdean kokatzen diren klubak parte hartzen dute eta taldeak, zehazki, honako hauek dira (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>):

- CE Global Basket UAB.
- Valida Sin Barreras-CB Mifas.
- CE BCR CEM L´H.
- CB Sureste GC Santa Lucía.
- CD Discasport.
- Joventut BCR.
- UNES FC Barcelona.

Multzo honetako parte hartzaileak, 7 talde dira.

“**Hegoaldeko Multzoaren**” kasuan, zortzi taldek parte hartzen dute, kokalekua, Espainiako Hegoaldean dutelarik. Multzo honetako taldeak honako hauek dira (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>):

- FDI Alcorcón.
- Cludemi.
- Deporte Adaptado Bahía de Cádiz.
- Murcia BSR.
- Ademi Tenerife.
- CDM. Elche.
- BSR Vistazul.
- BSR Cocomfe Puertollano.

Azken talde honetan, zortzi taldek parte hartzen dute (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Hiru multzoek, "Ohorezko mailan" bezala, asteburu batzuk deskantsatu egiten dituzte, beste kasu batzuetan, hala nola, Gabonetako oporrak izaten dituzte. Kasu honetan, "Ohorezko mailan" baino liga motzagoa da (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

"Ohorezko mailan" aipatu dudan bezala, talde guztiek, guztien aurka jokatu ondoren, lehenengo buelta amaitu eta bigarrena hasten da (Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>).

Maila gorenean ("Ohorezko mailan") ez bezala, liga honetan liga amaitzen denean ez dago errege koparik edo torneo internazionalik. Soilik, multzo bakoitzeko lehenengo biak gehi multzo guztietatik hirugarren sailkatu diren bi onenak, "Ohorezko mailara" igotzeko aurre final fourra jokatzeko aukera izango dute (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Aurre final four honetan, bi multzo bereizten dira, bakoitzean 4 taldek osatzen dutena. Bertan, guztiek guztien aurka jokatu behar dute. Hortik, multzo bakoitzeko bi onenak final fourrera sailkatzen dira. Final four honetan, "Ohorezko mailara" igoera erabakitzen delarik. Lau

taldeek, denek denen aurka jokatzeko dute eta lau haueetatik bi onenak mailaz igotzen dira (Iturricastillo, A., 2017 elkarrizketa).

Aurre final fourra, liga amaitzean ospatzen da, maiatzaren erdialdean gutxi gora-behera. Final fourra ordea, honen jarraian doa (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

3.2.2. EUSKAL HERRIKO TALDEAK

Aipaturiko lehiaketez gain, ez dago autonomietako ligarik, liga nazionalak soilik daudelarik. Salbuespen bezala, Euskal Kopa, Euskal Autonomi Erkidegoan soilik lehiatzen den lehiaketa bakarra da eta autonomia honetan, soilik, ondoren aipaturiko hiru taldeen artean lehiatzen da (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa):

- Caja Vital Zuzenak Fundazioa.
- BSR Salto Bera Bera.
- BSR Bidaideak Bilbao.

Lehen aipatu bezala, Euskal Herrian aurkitzen diren klubak, Nafarroan izan ezik, gainontzeko probintzia guztietan gutxienez bat aurkitu dezakegu (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

- Bizkaian, Bilbon hain zuzen ere:
 - Bidaideak Bilbao BSR.
- Araban, biak Kirol Elkarte berdinekoak direlarik, Gasteiz hiriburuan aurkitzen direnak:
 - Caja Vital Zuzenak Fundazioa eta Zuzenak BSR.
- Azkenik, Gipuzkoan:
 - BSR Salto Bera Bera, Donostian.
 - Ostadar Inklusioa deituriko Ostadar klubaren barruan aurkitzen den sekzioa, Lasarte-Oria herrian.

Datu gisa, aurretik aipatu dudana bezala, Nafarroan, garai batean Gurrupildun Aulkiko Saskibaloiko klub bat bazegoela, gaur egun ordea,

desagertua dago. Gauzak horrela, Nafarroan ez dago kirol hau praktikatzen duen talderik (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Gasteizko **Zuzenak Kirol Elkarteak** jarduten duen instalakuntzak, Gabriel Celaya, 15 beheko zenbakia, 0101 posta kodea duen helbidean aurkitzen da. Zentro hau, “Almudena Cid” deitzen da eta bertako instalakuntzetan ematen diren zerbitzuez gozatu ahal izateko, urritasun funtzionalen bat izatea beharrezkoa da.

Autoz joanez gero, arazo txiki bat atzeman daiteke. Arazo hori, elbarrientzat gordetako aparkalekuei dagokie, guztira noranzko batean bi baitaude, behar direnak baina gutxiago izanik.

Bertako *instalakuntzak*, guztiz kirol egokituari zuzenduak daude. Normalean aurki daitezkeen kiroldegien egiturekin zerikusirik ez du.

Hasteko, sarrera zabal batekin aurkitzen gara. Behin sartuta, aldapa zabal eta motz batekin topatzen gara, bertatik zuzenean saskibaloia kantzara eramaten gaituena. Hemendik aurrera, ez dago inolako beste koska edo aldaparik instalakuntza osoan zehar. Saskibaloia kantzaren inguruan espazio zabal handia dago, kiroldegi honetako gainontzeko geletara, erraztasun osoz bertaratzeko, hala nola, bulego, biltegi, gimnasio, komun eta aldageletara. Gela hauek, espazio handiko gelak dira, batez ere komun, gimnasio eta aldagelak, bertan egin beharreko gauzek eremu zabal baten beharra baitute.

Klub honek, aipatu bezala, *bi talde* ditu *errendimendura* bideratuak daudenak (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa):

- Caja Vital Zuzenak Fundazioa (Ohorezko mailatik aurreko jaitzia).
- Zuzenak BSR edo Zuzenak BSR “B” (Lehenengo mailan).

Caja Vital Zuzenak Fundazioaren eta Zuzenak BSR aren arteko ezberdintasuna, esanda bezala, zera da, lehenengoak, “Ohorezko mailan” jokatzeko duela eta bigarrenak ordea, “Lehenengo mailan” (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa). Aipatu bezala, Ohorezko maila, Espainia mailako mailarik gorena da, lehenengo mailak atzetik jarraitzen diolarik. Gasteizko talde hau,

Espainia mailan, Vigoko Amfiv taldearekin batera harrobia duen klub bakarra da (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Bestalde, Zuzenak Kirol Elkarteak badu errendimenduari zuzendua ez dagoen taldea, *talde eskolarra* bezala ezagutzen dena. Kirol Elkarte honek, GASaren inguruan eskaintzen duen errendimenduari loturik ez dagoen talde bakarra da. Talde honetan, aniztasun handia dago, bai adinaren aldetik, baita funtzionaltasunaren aldetik eta baita lesioen aldetik. Eskaintza honen helburu nagusia, aisia da eta noski, ariketa fisikoa egiten den bitartean, beraien artean egotea. Talde hau ikusi ahal izateko edo parte hartu ahal izateko (urritasun funtzionala beharrezkoa), ostiral arratsaldeetan izaten da hitzordua (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Aipaturiko talde eskolar honek, errendimendu kutsurik gabeko beste eskolen aurka ospatzen diren txapelketetan parte hartzen dute. Topaketa itxura duten txapelketak dira gehienbat eta urtean 2, 3 edo 4 aldiz egiten dira. Topaketa hauetan, Espainia mailako nahi duen talde eskolar orok izena eman dezake. Esaterako, ekainak 10ean izango da Zuzneka K.E.k antolaturiko talde eskolarren arteko topaketaren festa eta bertara, bai Madrileko, bai Valladolideko eta toki gehiagotako taldeek parte hartuko dute. Beraz, honekin inklusioa lantzeaz gain eta jende berria ezagutzeaz gain, gizartera zabaltzeko ekintza polita burutzen dute (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Gizarteratzearekin jarraikiz, Zuzenak K.E.k, talde eskolarraz gain, ikastolentzako zuzenduriko *sentsibilizazio programa* ezberdinak egiten dituzte. Programa hauek, hiru orduko saioak izaten dira eta dena, kirol egokitu ezberdinei buruzkoa da (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Kasu honetan, ikastetxeak zentrorra gerturatzen dira, bertan behar adina materiala baitago eta hau kanpora eramatea garesti ateratzen baita. Baina hala ere, ikastoletara gurgildun aulkiekin ere gerturatu ohi izan dira, saio ezberdinak burutuz, ikasle gazteei kirol egokitua ezagutarazteko, familiarizatzeke eta gizartean barneratzeko helburuarekin (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Aipaturiko jardunaldi hauek, batez ere umeekin burutzen dituzte, baina behin edo beste, unibertsitateetan dauden ikasle gazteekin, sentsibilizazio programak zentroan bertan egin izan dituzte. Kasu honetan, programaren biderapena antzekoa da baina sakonago aztertzen dituzte gaiak, hala nola, inklusibitatea (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Azkenik, gizarteratzeko burutu dituzten ekitaldi, programa eta abarrez gain, Espainia mailako maila gorenean aurkitzen den Gasteizko Baskonia S.A.D.en Buesa kantxan jokaturako partidetakoa hainbat deskantsuetan jokatzera atera izan dira (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Bidaideak Bilbao BSRren kasuan, Circo Amateur del Club Deportivo kalea, 2, 48004, Bilbao, Bizakaian kokatzen da. Jarduten diren kiroldegi honen izena, “Txurdinaga Kiroldegia” da. Ikusi dudanagatik, kiroldegi honen inguruan aparkaleku asko daude, baina orain arte gainontzeko instalakuntzetan aurkitu dudak bezala, elbarrientzako aparkalekurik ia ez dago (Bidaideak Bilbao BSR: <http://www.bilbaobsr.com/>).

Kiroldegi honen *instalakuntzak* oso anitzak dira, baina, informazio eskasiaren ondorioz eta jendearekin kontaktuan jartzea lortu ez dudanez, ezin dut jakin izan ea instalakuntza hauek egokituak dauden edo ez.

Klub honek, *errendimenduari bideraturiko talde* bakarra dauka eta harrobirik, Zuzenak K.E.k ez bezala, ez du. Talde hau, “Ohorezko mailan” dago eta fase erregularreko lehenengo lau sailkatuen barnean kokatzen da, hirugarren postuan hain zuzen ere. Honen ondorioz, aurten Albaceten ospatuko den Final Four-era sailkatu da (Bidaideak Bilbao BSR: <http://www.bilbaobsr.com/>).

Honez gain, klub honek, *talde eskolarra* ere badu. Talde honek, larunbat goizetan entrenatzen du eta bertaratzea eta apuntatzera gonbidatzen dute. Talde honen helburua, aisia eta kirol hastapena du nagusi (Bidaideak Bilbao BSR: <http://www.bilbaobsr.com/>).

BSR Salto Bera Bera bere aldetik, Serapio Mujika, 1, 20016 Donostia, Gipuzkoan kokatzen den “Bidebieta Kiroldegian” jokatu eta entrenatzen dira. Kiroldegi honen inguruan, aparkatzeko leku asko dago eta horien artean oraingo honetan ere, elbarrientzako, soilik bi aparkaleku.

Instalakuntzei dagokionez, ez daude guztiz egokituak, zer edo zer egokitua dago, hala nola, sarrera, nahiz eta bertako ateen sartzeko erraztasun askorik ez duten ematen. Honez gain, aldagelak ere, pixka bat egokituak daude, baina ez dute ehuneko ehunetan irisgarritasuna betetzen (López Garin, N., 2017, elkarrizketa).

Bera Bera, Gorpildun Aulkiko Saskibaloia hain zuzen ere, aurreko urtera arte, Bera Bera klubaren sekzio bat zen, gaur egun ordea, saskibaloia sekzioaren barruan sartua dago (López Garin, N., 2017, elkarrizketa).

Bertako taldeei dagokionez, *errendimenduari bideratutako talde* bat dute. Talde hau, “Lehenengo mailan” lehiatzen den Salto Bera Bera da hain zuzen ere.

Honez gain, errendimendua alde batera utzita, *aisia helburu nagusizat duten pertsonentzako, eskola deituriko sekzio* moduko bat dute saskibaloiko sekzio honen barruan (Iturricastillo, A., 2017, elkarrizketa).

Bertan, Gorpildun Aulkiko Saskibaloian lehen pausuak eman nahi dituen jendearentzako egindako taldea da eta pertsona hauekin batera, denbora pasa bat bezala hartzen dutenek eta urritasunik ez dutenek, inklusioa lantzea helburu izanik, parte hartzeko aukera dute (López Garin, N., 2017, elkarrizketa).

Honez gain, sekzio honetan, urritasun baten beharrik ez izateaz gain, parte hartzeko, ez sexu eta ezta adinaren mugarik ez da ezartzen. Hala ere, jende eskasia dela eta, sekzio txiki honi ez diote talde bezala izendatzen. Eskola honek, Eskolarteko Txapelketetan parte hartzen du, hala nola,

Zuzenak K.E.k antolatuta ospatuko den txapelketan (López Garin, N., 2017, elkarrizketa).

Talde honekin amaitzeko, *sentsibilizazio programei* buruz hitz egingo dut, kasu honetan, talde honek, “Sentsibilizazio Jardunaldiak” deituriko programa bat martxan jarrita dute eta bertan, eskola eta ikastola ezberdinetara gerturatzen dira bertako umeei GASa ezagutu dezaten. Honez gain, zutikako saskibaloia praktikatzen duten edo beste edozein kiroleko (eskubaloia besteak beste) jokalariekin entrenamenduak egiten dituzte, pertsona hauek, GASaren errealitatea lehenengo pertsonan ezagutu dezaten (López Garin, N., 2017, elkarrizketa).

Ostadar Inklusioa bere aldetik, Beko Kale Bidea, 3, 20160 Lasarte, Guipúzcoa, Gipuzkoan kokatzen den kiroldegian jarduten da. Kiroldegi honen izena, duela gutxi ezarritako “Lasarte-Oriako Maialen Chourraut Kiroldegi Munizipala” da. Instalakuntza honen inguruan, T.A.O.rik gabeko aparkaleku asko daude, baina elbarrientzako gordetako aparkalekuak kasu honetan ere, oso gutxi dira. Kiroldegiaren parean hiru bat aparkaleku soilik aurkitzen dira.

Jarduten diren kiroldegiaren *instalakuntzak* ez daude guztiz egokituak. Aipatu beharra dago, sekzio hau oso gaztea dela eta orain arte kiroldegi honetan ez dela horren sakonki inoiz kirol egokitua barneratu, beraz, orain, aldaketa txikiren bat egitea lortu da eta aldagelak egokituak egin dituzte. Hala ere, egokitzapen askorik gabe, ahal den neurrian egokitzen saiatzen dira, hau da, igogailu batez gozatzeko aukera dutenez, erabilgarritasun handia ematen diote (Olasagasti Ibargoiien, J., 2017, elkarrizketa).

Aipatu beharra dago, Ostadar Inklusioa, Ostadar Klubaren barruan aurkitzen diren hainbat sekzioetako bat dela. Sekzio hau, inklusiora bideratutakoa da eta helburu nagusia aisia eta eskola kirola eta kirol hastapena lantzea da, hau da, sekzio honek ez ditu inondik inora ere errendimenduari bideraturiko taldeak (Olasagasti Ibargoiien, J., 2017, elkarrizketa).

Ostadar Inklusioaren parte izateko, Ostadar klubean izena ematea beharrezkoa da, honen parte den sekzio bat baita. Honek zera suposatzen du,

klub honek ezartzen dituen betebeharrak eta eskubideak bete beharko direla, beste edozein klub edo elkarteetako parte izatea erabakitzen denean bezalaxe (Olasagasti Ibargoién, J., 2017, elkarrizketa).

Oraingoz, bertara gerturatu eta probatzen aritu diren pertsonak, 8 eta 17 urte bitarteko gazteak izan dira, bai urritasunak dituztenak, baita urritasunik ez dituztenak ere. Beraz, ikus daitekeen bezala, sekzio hau, edozein jendearentzat zabaldua dago. Honez gain, azpimarratu behar da, bertan parte hartu ahal izateko, ez dagoela adin mugarik, hau da, nahi duen orok parte hartu dezakeela (Olasagasti Ibargoién, J., 2017, elkarrizketa).

Sekzio hau berria izanik, oraindik ere hazten ari da eta ez du denbora handirik izan edonolako jai, jardunaldi eta abar antolatu eta ospatzeko. Hala ere, topaketa ezberdinetan parte hartzen saiatu izan da eta lehen aipatu dudana Zuzenak K.E.ren ekainak 10eko topaketan izango dira (Olasagasti Ibargoién, J., 2017, elkarrizketa).

Honez gain, *gizarteratzeko programarik* momentuz ez badute ere, egin izan dute, ez Gorpildun Aulkiko Saskibaloiri buruz soilik, baizik eta kirol modalitate ezberdin asko barneratuz, hala nola, esku pilota, futbola eta abar, gizarteari ezagutarazteko jardunaldi bat besteak beste. Bertan, parte hartzea librekoa izan zen, nahi zuen orok libreki probatzeko aukera izanik. Aipagarriena zera da, jardunaldi honetan parte hartzen zuenari, hau da, urritasunik ez zuen orori, urritasun funtzionalen bat ezartzen zitzaion eta benetan, urritasun hori izango balu parte hartu behar izaten zuen (Olasagasti Ibargoién, J., 2017, elkarrizketa).

4. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

Lan hau burutu ostean, hainbat ekarpen positibo eta negatibo jaso ditut eta kirol egokitua aurkitzen den egoera errealerara begiak zabaltzen lagundu dit.

Nire lan honetan, argi ikusi daitekeen bezala, lortutako informazio gehiena, zuzenean adituei egindako galderei (elkarrizketak) esker izan da eta ez da hasiera batean espero nuen bezala, internetetik informazio gehiena jaso eta falta zena adituei galdetuz betetzea. Honen ondorioz, lana aurrera eramatea gehiago kostatu zait.

Kasu batzuetan, informazio eskasia dela eta, nondik nora jo ez nekiela egon naiz. Lana erabat baztertuta ere utzi behar izan dut gehienbat bidalitako mezuei erantzunik jaso ez dudalako edo pertsona horrek, egun batzuen buruan erantzun didalako (lanpetuta edo dena delakoa aurkitzen zelako).

Artikulu edo sarean agertzen den informazioarekin nahikoa izango balitz, nire martxan jarraitzea errazagoa izango litzateke, baina adituen erantzunaren esperoan egotearen alde txarra zera da, bere erantzunaren zain geratu behar dela, zure lan erritmoa hautsiaz. Gainera, aditu hauek Euskadiko hiriburuetan topa ditzakezu, beraz, beraiekin elkarrizketa bat izateko, bertara gerturatu beharko duzu, hau da, garraio bide baten menpe aurkitzen zara.

Honekin zera esan nahi dut, Gorpildun Aulkiko Saskibaloia garatzeko eta batez ere honi buruzko informazio nahikoa eskuragarria izateko, oraindik ere pausu handi asko eman behar direla. Nahiz eta kontaktuan jarri naizen adituak, modalitate honetan oso jakitunak direla ikusi ahal izan dudana, kirol honetara guztiz edo zeharka dedikatzen direnak ez dira asko, talde kopurua ikustea besterik ez dago. Talde gutxi daude, beraz, adituak ere beste hainbeste.

Interneten kasuan edo artikuluen kasuan, nire lan honetarako erabilgarriak izan diren artikulak oso gutxi izan dira. Nire kasuan, orokorrean, Gorpildun Aulkiko Saskibaloia buruz informatzea zen nire helburua, teknika, taktika eta honelako gauzetan sartu gabe. Artikuluetako arazoa ordea, hemen ikusten da. Orokorki, GASari buruz informatu nahi baduzu, hau da, zein ligak dauden, klasifikazioak eta

abar, oso artikulu gutxi aurkitzen dira, hala ere, aipatu beharra dago, artikulu zehatzak, argiak eta ulerkorrak izan dira baliagarritzat hartu ditudan artikulu horiek.

Honez gain, adituekin gertatzen den bezala, klubak hiriburuetan soilik kokatzen dira eta horregatik adituak bertan. Aurretik aipatu bezala, adituak bezala, klubak hiriburuetan kokatzearen alde txarra zera da, partida edo entrenamenduren bat ikusi nahi izanez gero, bertara mugitzea beharrezkoa da, ez baitago herri txikiago batean edo probintzietan zehar honelako jarduera bat ikusteko beste edonolako aukerarik.

Gainera, ikusteaz gain, parte hartu nahi baduzu ere, garraibideren bat erabiltzera behartzen zaitu, zer esanik ez urritasun funtzionala duten pertsonak. Hau da, klub hauetan parte hartu ahal izateko, hiriburuetan bizi direnentzat, erraza izango da bertaratzea eta kirol honetaz gozatzea. Hiriburuetan bizi ez direnak ordea, kotxea, autobusa edo bestelako garraioen baten beharrea aurkitzen dira, gainera, dituzten muga eta zailtasunak direla eta, arazorik edo mugarik ez duen pertsona batentzat baina zailagoa izango da beti ere alde batetik bestera mugitzea, beraz, honek, talde hauetan parte hartzearen ideia hori albo batera uztea oso ohikoa izan ohi da.

Nafarra bazara zer esanik ez. Garai batean talderik bazen ere, gaur egun ez dute errepresentaziorik, beraz, bertan aurkitzen diren urritasun funtzionala duten pertsonak, gertuen duten klubetara joateko, kilometro asko egin beharrea aurkitzen dira.

Honekin batera, publizitate falta ere izugarria da. Ez telebistan eta ez irrati edo egunkarietan, ez da GASari buruzko informaziorik topatzen. Eskaintza txikia izateaz gain, hau bultzatu eta eremu zabalago batera zabaltzeko lan handia ez dago egina. Honek jendearengan ezjakintasuna dakar, beraz, parte hartzaile kopurua ez da behar bezain beste igoko. Honez gain, jende askok, Gorpildun Aulkiko Saskibaloian aritzeko, egunerokotasunean, gorpildun aulki batean ibili behar dela uste du, honelako ezjakintasunak, aurrera pausuak ematea zailtzen du, baita jendea probatzera edo parte hartzera gerturatzea zaildu ere.

Honen ondorioz, abian jarri diren sentsibilizazio programak gero eta gehiago dira. Adin guztietara bideraturik dauden arren, programa hauek, askok, haurretara bideratzen dira, hauek baitira gure etorkizuna eta beraiek jasotako hezkuntza

etorkizunerako garrantzi handia du. Honez gain, azkenaldian, errendimendua helburu ez duten talde ezberdinak sortu izan dituzte, soilik gustukoa den jarduera bat, denbora librean egiteko aukera emanaz. Baina bere arazoa ere badu, honek, parte hartu ahal izateko, urritasun funtzionalen bat izatea behartzen baitu, honek, inklusibitatea eta guztizko gizarteratzea baztertzen duelarik, nahiz eta arrazoiak pisutsuak izan.

Hau ekidin nahian, Lasarten sortu den Ostadar Inklusioa sekzioaren sorrera eman da. Lehiatzeko behar diren mugak alde batera utziz, soilik aisira bideraturiko kirol egokituko jarduerak burutzen dira. Honekin, urritasun funtzionala duten pertsona orok eta baita, urritasunik ez duen beste edozeinek parte hartu ahal izango duen kluba izango da. Honek, guztizko inklusioa bideratzen du eta are garrantzitsuagoa dena, parte hartzeko, gozatzeko eta ikasteko urritasunik duzun edo ez, mugarik duzun edo ez, zehaztapenaren beharrik ez dela izaten azpimarratu behar da, denen parte hartzea ongi etorria izanik.

Gauzak horrela, mundu honi buruz asko ikasteko eta datorren jendeari edo honi buruz ikasi nahi duenari, oinarrizko informazioa eskaintzeko aukera izugarria zabaldu zait. Honez gain, indartsu azpimarratu nahi dut, kirol modalitate hau, bai sarean, bai gizartean eta baita publizitate gaitan sakontasun gehiagoren eta indar gehiagoren beharrea aurkitzen dela. Hau lortuz gero, goraka doan kirol honek, gorakada oraindik ere bizkorragoa eta handiago bat izango du eta gizarte osoan zehar, kirol honi buruzko orokortasunak, pertsona orok edo gehientsuenak jakitun izango dira. Eta honez gain, bai aisialdira bideraturiko taldeak eta baita inklusioari bideraturiko klubei garrantzi handiagoa emanez, gizarteratzea errazagoa izango da, jende gehiagok eta batez ere, nahi duen orok Gorpildun Aulkiko Saskibaloiaz gozatzeko aukera handiagoa izanez. Horretarako, hiriburuetan soilik aurkitzen diren klubak, probintzi guztian zehar nola edo ahala zabaltzen hastea aukera polita izango litzatekeelarik.

5. PROPOSAMENA

Ikusitako ondorioak direla eta, kirol modalitate honi bultzada bat ematea garrantzitsua da. Aipatu bezala, Gurpildun Aulkiko Saskibaloiaz disfrutatzeko, hiriburuetara mugitzea beharrezkoa da. Aurten sortu den Ostadar Inklusioa, Ostadar klubeko sekzioa ez ezik, Lasarten kokatzen dela. Hala ere, hiriburuetatik kanpo aurkitzen den klub bakarra da eta hala ere, Donostiatik gertu geratzen da, beraz, berdin, desplazamendua beharrezkoa da eta baita garraio baten beharra ere. Gauzka horrela, nire proposamena ondorengo hau izango da.

5.1. PROPOSAMENAREN OINARRIAK

Gaur egun, indar gero eta gehiago hartzen ari den kirol hau, jende askorentzat, oraindik ere ez da guztiz ezaguna. Lehiatzeko jartzen diren mugez gain, gertutasunik ez duen kirola baita. Honekin zera esan nahi dut, Gurpildun Aulkiko Saskibaloiaz disfrutatzeko, bai jokatzu eta bai ikusle bezala, hirietara desplazatzea beharrezkoa dela, honek jendea ez gerturatzea dakarrelarik.

Euskal Herrian dauden GASeko sekzioa duten klubak, sekzio hauen bitartez, pixkanaka ahalik eta jardunaldi, sentsibilizazio programa edo dena delakoak, gehiago egiten saiatzen ari dira. Hala ere, lehen aipatu bezala, azkenaldian izugarritzko gorakada izan duen kirola izan arren eta gaur egun, kirol paralinpikoetatik famatuena izan arren, diru eskasia izugarria da, bai klub eta bai Kirol Egokituko Federazioetan.

Gainera, diru kontuarekin jarraituz, oinarrizko gauzetarako, klub hauek behar duten diru kantitatea, hala nola, bidaietarako, hoteletarako eta abar, zutikako kirolean baino handiagoa da. Hau dena, dituzten beharregatik da, ezin baitute edonolako autobusetan, hegazkinetan edo hoteletara bidaiatu. Urritasun funtzionalak direla eta, eta honez gain, dituzten elbarritasun ezberdinak direla eta, behar dituzten gurpildun aulkiak edo dena delakoak direla eta, garraio egokituak eta hotelak

egokituak egotea beharrezkoa da. Gauzak horrela, kostua asko igotzen da, baina diru laguntzak behar den guztirako oso txikiak izaten jarraitzen dute.

Arrazoi nagusi hauei esker, proposamen hau, aipatu dena, ahal den neurrian hobetzen laguntzeko erabiltzea nahi dut. Nahiz eta eginbeharreko lana oso handia eta luze joko duena izan, pausu txikiak emanez, hobetu daitekeen gauza bat da.

Proposamenarekin, gizartean aurkitzen den adin oso ezberdineko jendeak ikusgai eta praktikatzeko aukera izan dezakete. Honekin soilik, Gorpildun Aulkiko Saskibaloiak duen arazo nagusienetako bat hobetzea lortzen da, hala nola, desplazamenduaren beharra. Kilometro askotako desplazamenduaren beharrik gabe, herri honetako herritarrak eta baita inguruko herritarrek, kirol modalitate honetaz gozatzeko aukera izango dutelarik.

Gauzak horrela, proposamena, herri txiki ezberdinetara gerturatzeko proposamena izango da, baina proposamen honetan hain zuzen ere, Beasaingo herrian zentratuko da. Bertan burututako proposamena oinarritzat hartuta, gainontzeko herrietarako bidea izango delarik. Proposamen honen izena, “Gorpildun Aulkiko Saskibaloia ezagutzuz” da eta jakinen gainean uzten da, ekitaldia ez dela irabazi asmokoa izango.

5.2. PROPOSAMENAREN HELBURUA

Proposamen honekin lortu nahi dudan gauzarik garrantzitsuena, Gorpildun Aulkiko Saskibaloia ahalik eta jende gehienak ezagutzea, familiarizatzea, gerturatzeko eta garrantzitsuena dena, kirol modalitate honi buruz informazio egokia jasotzea izango da.

Informazio egokia jasotzearekin zera esan nahi dut, jende askok, Gorpildun Aulkiko Saskibaloian parte hartu ahal izateko, gorpildun aulki baten menpe egon behar dela uste du. Informazio oker hau, gizartean oso zabalduta dago eta honek, kirol modalitate honetara gerturatzeko zailtasunak besterik ez ditu jartzen.

Honez gain, jendeak, oinarritzko esperientzia txiki bat izatea polita izango litzateke, batez ere, Gorpildun Aulkiko Saskibaloia errealitatea gertutik

ezagutzeko, hala nola, dituen zailtasunak, jokatzeko ekartzen dituen esperientziak eta abar. Hau lortzeko, jolasten lortzen da.

Gauzak horrela, proposamenaren helburuak hauek dira:

- GASarekiko familiarizazioa eta ezagutza.
- GASarekiko informazio okerra baztertzea eta egokia barneratzea.
- GASeko esperientzia berriak bizitzea.
- Aisian GASaz disfrutatzea.

5.3. PROPOSAMENAREN GARAPENA

5.3.1. PROPOSAMENAREN PLANGINTZA

“Gurpildun Aulkiko Saskibaloia ezagutzeko” proposamena, aipatu bezala, Beasainen egingo da, 2018ko maiatzaren hasiera aldean egingo da. Proposamen honen helburuak, orokorrean, GASa ezagutzea eta esperientzia berri batzuk bizitzea direlarik. Aurkeztuko dudako proposamen hau, kirol modalitate honi buruz ikasteaz gain, aisian, Gurpildun Aulkiko Saskibaloiaz disfrutatzeke aukera emango da. Gainera, parte hartzea, guztiz doakoa izango denez, jendearen parte hartzea handiagoa izateko aukera gehiago daude.

Honetarako, Beasaingo herriko plazan, Loinazko San Martin plazan hain zuzen ere, egingo da ekitaldia. Gainera, plaza honen kokapena egokia da honelako ekitaldiak aurrera ateratzeko.

Plaza hau, Beasaingo eremu jendetsuenean kokatzen da. Beasain handitu baino lehen, herriaren erdigunea zen eta gaur egun erdigunea bezala ere ezagutzen dena.

Honez gain, ekitaldi hau, igande goiz batean ospatuko dela eta, jende asko gerturatuko dela espero da, igande goiz eguerdi partean, gune horretara jende asko gerturatzen baita inguruko tabernetan, lagunekin egotera. Gainera, gerturatzen den jendea, normalean, gurasoak izaten dira eta beraien umeak

beraiekin eramaten dituzte. Gauzak horrela, bai jende kopuru eta bai, kokapenarengatik, eremu egokiena da.

Data, maiatzaren hasieran jartzearen arrazoia ordea zera da, aire librean egingo den ekitaldia dela eta, nahiz eta datak, eguraldi ona egingo duela guztiz ez ziurtatu, egun horietarako, eguraldia hoberantz jotzen duela eta, data egokiak dira. Gainera, GASEko "Ohorezko maila" bukatzearegongo da, baina ez amaituta, beraz, ligako partidaren ikusteko interesatua dagoen orok, ligako partidaren bat ikusteko aukera izan dezake.

Baimenei dagokionez, Beasaingo plaza erabiltzeko, bertako udaletxeari alde zurratik baimena eskatuko zaio ekitaldia aurrera eramanez ahal izateko.

Ekitaldi honetan, parte hartzeko aukera oso irekia da, hau da, 8 urtetik gorako nahi duen orok parte hartu dezake. Muga hau jartzearen arrazoia gehienbat, aulkiak umeei egokitzea ia ezinezkoa izan daitekeelako da eta erabiltzen diren baloiak eta saskien neurriak, egoera erreal batekoak direla eta, umeentzat handiegiak dira.

Ekitaldian egingo diren jardueretan zentratuz, hiru posta ezberdin egingo dira. Bata bestearekin lotuak egingo direlarik, progresio moduko bat jarraituko dute. Honez gain, bai tartetik eta bai ekitaldiaren amaieran, Gurrupildun Aulkiko Saskibaloian ibiltzen diren lau jokalariren erakustaldiak egingo dira. Postak eta jarduerak, honako hauek izango dira:

1. Informazio gunea.
2. Praktika gunea.
3. Partida gunea.
4. Erakustaldia.

Ekitaldira gerturatzeko ordua, jendeak nahi duena izango da, irekitzen den momentutik itxi egiten den arte, bertan egingo baikara, beraz, jendeak nahi duenean azaldu dezake.

Honen ondorioz, baliteke, partida gunean jende ezaren ondorioz, partidarik jolasteko aukerarik ez izatea. Kasu honetan, pertsona honek, nahi duen denbora guztia jokatzen egingo da eta bertako arduradunek dinamika

ez gelditzeko, parte hartuko dute, baina aipatu beharra dago, parte hartu ahal izateko, ez dugula zertan jende kopuru baten beharrik ezarriko. Ahalik eta jende gehien hobe eta denak ongi etorriak izango baitira.

Lehenengo postan, hau da, informazio gunean, GASari buruzko informazio orokor eta oinarrizkoena emango da. Gorpildun aulkian lotuta joan behar denetik hasita, lehiaketetako hainbat informazio eman arte.

Honetarako, aulki eta mahai batzuk jarriko ditugu posta honetan eta mahai bakoitzeko, plastifikaturiko paperak egongo dira. Bertan, informazio guztia eskainiko delarik.

Honez gain, pantaila txiki batez gozatzeko aukera egongo da, zeinetan, paperetako informazio guztia etengabe, bideoetan azalduko den, honela, ulertzeko errazagoa izango delarik.

Oinarrizko informazio hau barneratutakoan, bigarren postara bidaliko ditugu. Posta honetan, lehenengo postan ikusitakoa praktikan jartzeko gunea izango baita, horregatik, praktika gunea.

Azkenik, posta guzti horiek pasa ondoren, partida gunera pasako dira. Bertan, partidak jolastuz, egoera ahalik eta errealena bizitzeko aukera izango dute.

Aipaturiko dena, parte hartu nahi duen ororentzat izango da. Hala ere, Gorpildun Aulkiko Saskibaloian ibiltzen diren lau jokalariei esker, goizaren erdialdera eta ekitaldia amaitze aldera, partida erakustaldi batzuk egingo dituzte.

Erakustaldia, bi aldiz egitearen arrazoia zera da, jendea joan eta etorri ibiliko dela eta, ahalik eta jende gehienak egoera erreal bat ikusteko aukera izan dezan burutuko dira. Goizaren erdialdean egitearen arrazoia ordea, gehienbat, parte hartu duen jendeak edo ondoren parte hartuko duen jendeak, ikasi duena edo ikasiko duena egoera erreal batean nola den ikusteko aukera izan dezan lortu nahi da.

Kasu honetan, erakustaldiak baino 15 minutu lehenago, postak eten egingo dira, jendea partida guneko postara gerturatzeko eta erakustaldiaz gozatzeko.

Posta bakoitza amaitzen denean, bertan aurkitzen den monitore batek, papertxo batean firma bat botako du eta posta amaitu duen pertsonari emango dio, honela, progresioa egoki betetzen ari dela eta ezarritakoa bete duela ziurtatuko da. Posta bakoitzean, aurreko postatik datozen orori, paperean dagoen firma hori ematea eskatuko zaio parte hartu ahal izateko eta posta bakoitzeko arduradunak gorde egingo du. Honekin, edonolako tranpak ekiditea lor daitekeelarik.

5.3.2. PROPOSAMENAREN EGITURAKETA

Ekitaldia, goizeko 9tan irekiko da eta amaiera 13:30tan izango da GASeko jokalarien bigarren erakustaldiarekin batera. Tartean, hau da, 11:15ak aldera, jokalarien lehenengo erakustaldi ordua izango da eta bigarrena eta ekitaldiari amaiera emango dion jarduera, 13:15tan izango da.

Gauzak horrela, ekitaldiaren egituraketa honela geratuko litzateke:

| | |
|--------------|---|
| 9:00 | Irikiera |
| 11:00 | Posten etenaldia |
| 11:15 | 1.erakustaldia |
| 11:30 | Postak berriro ere martxan jarriko dira |
| 13:00 | Postak eten eta itxialdia |
| 13:15 | 2.erakustaldia |
| 13:30 | Ekitaldiaren amaiera |

Etenaldietan, informazio gunean, ekitaldiaren hasiera ematen den posta dela eta, ekitaldia amaitu arte, jende berririk sartzen ez da utziko. Amaitzean, hasteko aukera berriro ere irekiko litzateke, bigarrenengo erakustaldiaren ondoren izan ezik, ekitaldia amaitutzat emango baita. Hala ere, erakustaldien ordua iritsi eta postetan aurkitzen den jendeak, partida gunea ezik,

gainontzeko postak amaitzeko aukera izango dute, amaitu eta erakustaldira gerturatu ahal izateko.

Lehenengo posta, plazan aurkitzen den aterpean kokatuko da, gainontzekoak, plazaren erdian dagoen kioskoak plaza bitan banatzen duelarik, plazaren alde batean, praktika gunea kokatuko da eta bestean partida gunea.



5.3.3. PROPOSAMENAREN PAUSUAK

Goizeko **9:00**tan, ekitaldiari hasiera emango zaio. Bertan, posta guztiak irekiko dira, baina beti ere, informazio gunearen posta, parte hartzaileentzat lehenengo aukera soila izanik.

Lehenengo posta honetan, lehen aipatu bezala, informazio ezberdina eskainiko da eta horretarako, posta ezberdin batzuk jarriko dira. Lehenengoa, paperezko informazioa izango da eta bertan, mahaietan. Paper hauetan erakutsiko dena, Gorpildun Aulkiko Saskibaloari buruzko informazio orokor eta oinarritzkoa izango da. Posta honetan, laguntzen eta behar diren gauzak azaltzen, arduradun batez gozatzeko aukera egongo da. Informazio honetan sartzen den informazioa, alde batetik orokorra eta bestetik espezifikoa izango da.

Orokorren kasuan, emango informazioa, jokoan guztiz sartu gabe jakin beharrekoa azalduko da, hala nola, gorpildun aulkiari jokalaria gerritik behera lotua joan beharko dela, parte hartzeko ez dela zertan gorpildun aulki baten menpe egon behar, sailkapen bat existitzen dela, zeinetan, jokalaria bakoitza, gaitasun funtzionalaren arabera emandako puntuazioaren arabera jokalarien sailkapena dela eta kantxan jokatzen ari diren jokalarien puntuazio maximoa 14koa dela.

Espezifikoaren kasuan ordea, jokatze garaian kontuan hartu beharrekoa azaltzen da, hala nola, pausuak nola egiten diren, beraz, nola ekidin, hau da, gurpilei bi aldiz eraginda, hurrengoan punpa egin beharko dela eta baimenduta dauden blokeoak ere nola egiten diren, gurpilaren albo batekin hain zuzen ere.

Posta honetako bigarren posta, pantaila bat izango da, zeinetan, paperezko informazio guztia etengabeko bideoetan azalduko den, hau da, gutxi gora-behera praktikan nola izan beharko litzatekeen.

Posta honek, guztira, 10 minutu iraungo ditu eta amaitzean, postako arduradunak, paperean eginiko firmak parte hartzaileetako bakoitzari eman eta bigarren postara bidaliko ditu.

Bigarren postan, hau da, praktika gunean, gurpildun aulkietan jartzen eta hauek lotzen laguntzeaz gain, pausuak ekiditen, jaurtiketak eta blokeoak ikasteko zirkuitu moduko bat egongo da. Posta honetako zirkuituan, alde batetik pausuak ekiditeko posta, arduradun baten kontrolpean egongo da, zeinek ariketa azaldu, erakutsi, zuzendu eta lagundu egingo duen eta beste bat, blokeo eta jaurtiketen postan, honek ere aurrekoaren funtzio bera izango duelarik.

Zirkuitu honetako postei dagokionez, pausuen posta bi zatitan banatzen da, bat lerro zuzenekoa eta bestea zig-zag modukoa, honekin gurpildun aulkiaren eta baloiaren kontrol handiagoa behartuz. honela banatuko dira.

Bigarren postan, hau da, blokeoetan, hiruko bi talde egongo dira, bata saskiaren alde batean eta bestea ordea bestean. Bertan, bat blokeatzailea, beste bat blokeoa jasotzen duena eta azkenik, jaurtitzaila egongo da. Egituraketa honekin jolastuko dute une oro posta honetan.

Praktika gune honetan, jokalaria bakoitzak, guztira 15 bat minutu jardungo ditu. Amaitzean, lehenengo postan bezala, bigarren postako arduradunak, paper batean bere firma bota eta parte hartzaileak azkeneko postara joango direlarik.

Hirugarren eta azkeneko postan, helburua 2x2 partidak egitea da, baina jendearen arabera agian 1x1 ere egin beharko da. Zelaia osoa izango denez, zelai erdian partida bat jokatzen egongo da eta bestean beste bat. Beraz, posta honetan, aldi berean jokatzen egongo diren pertsona kopuru muga 8 pertsonakoa izango da.

Posta honetan, ordura arteko jasotako informazio eta praktika guztia martxan jartzeko, egoera erreal batean jartzeko pentsatua egongo da. Bertan, bi arduradun egongo dira eta arduradun bakoitza partida bat kontrolatzen egongo da. Hala ere, arduradunen kontrola ez da batere zorrotza izango, malgutasun handia egongo da, ikastea eta aisia baita helburua.

Posta honetako iraupena, bi zatitan banaturiko 10 minutuko partidak izango dira. Zati bakoitzak, 5 minutu izango ditu eta jokalariek bi minutu izango dituzte deskantsatzeko eta ura edateko.

Jarduera guzti hauek, goiz osoan zehar egiteko aukera izango dute. Baina **11:00**tan, postak eten egingo dira.

Azkeneko posta izango da ordu horretatik aurrera jarraitzeko aukerarik izango ez duen posta bakarra, Gorpildun Aulkiko Saskibaloiko jokalarien erakustaldia hasteko 15 minutu baitaude eta jokolari hauek beroketak egiteko kantxa behar izango baitute. Erakustaldia amaitu bezain pronto, partida gunean zeudenek, partidari falta zitzaion denbora jokatzeko aukera izango dute.

11:15tan lehenengo Gorpildun Aulkiko Saskibaloiko jokalarien erakustaldia hasiko da. 2x2 partida bat izango da eta 7 minutuko bi zati izango ditu, minutu bateko atsedenarekin. Partida erreal bateko arauak praktikan jarriko dira eta honekin, ekitaldi osoa etenda eta jendea partida gunera joatera bultzatuta, jende askorentzat, zuzenean GASeko partida bat bizitzeko, lehenengo aukera izango du.

11:30ak inguru, erakustaldia amaitu egingo da eta ekitaldiko posta guztiak berriro ere martxan jarriko dira. Aurrez aipaturiko jarduera guztiez, **13:00**ak arte, berriro ere gozatzeko aukera egongo delarik, bertan berriro ere erakustaldiaren aurreko dinamika bera jarraituz, ekitaldia eten egingo baita. Kasu honetan ordea, erakustaldi ondoren jolasten jarraitzeko aukerak amaitu egiten dira erakustaldiaren ondoren ekitaldia amaitutzat ematen baita.

Lehenengo erakustaldiaren dinamika berdina jarraituz, bigarren erakustaldia ikusgai egongo da aipaturiko ordutik aurrera. Amaitzean, hau da, **13:30**ak inguru, ekitaldia guztiz amaitutzat hartuko da. Nahi duen orok, erakustaldia egin duten jokalariekin egoteko aukera izango dute eta Euskal Herrian aurki daitezkeen GASeko klubaren informazio pixka bat jaso nahi duen orok, informazio gunera jo beharko du, bertan, klubaren izena eta klub bakoitzak jokatu eta entrenatzen duen kiroldegiaren helbidea papertxo batean jasotzeko aukera izango baitute.

5.3.4. PROPOSAMENAREN BALIABIDEAK

Proposamen hau aurrera atera ahal izateko kontutan hartu beharko diren baliabideak asko dira, baina hiru multzo ezberdinetan banatuko dira, hala nola, giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide ekonomikoak.

5.3.4.1. Giza baliabideak

Giza baliabideen kasuan, ekitaldiko postetan behar diren arduradunekin, gehi bi arduradun orokorrak izango direnekin, ekitaldi hau aurrera ateratzeko, guztira, 7 arduradunen beharra dago.

Boluntario lan honen eskakizuna, Gurpildun Aulkiko Saskibaloiairen munduan sartuta daudenei zabalduko zaie, hau da, bai Bera Berako GASeko taldean sartuta daudenei eta baita Zuzenak K.E.ko parte diren jendeari ere, bai kirolari, bai entrenatzaile ere, mundu hau gehien ezagutzen dutenak baitira eta honez gain, posta bakoitzean, parte hartzaileei ahalik eta gehien laguntzeko aukera gehien duten jendea direlako. Arduradun hauei, jakinarazi behar zaie, eskaintzen den lana, boluntario lana izango dela.

Hauetz gain, Salto Bera Berako eta Zuzenak K.E.ko klubekin kontaktuan jarrita, erakustaldirako 4 jokalariren presentzia boluntarioa eskatuko dut. GASa bultzatzeko den ekitaldi bat izanik, prest dauden lau jokalaria soilik behar izango dira, hauek, bi erakustaldi soilik burutzeko.

Bi klub hauei eskaintzearen arrazoia zera da, Beasaindik gertuen kokatzen diren bi klubak direla, Bidaideak Bilbao BSR taldearen kasuan, arduradunak eta erakustaldiko jokalaria, boluntarioak izango direla eta, ez dute desplazamenduarengatik dirurik jasoko, beraz, hauentzat ez litzateke eraginkorra izango.

Giza baliabideekin amaitzeko, garraiolariak ere kontuan hartu behar dira. Ekitaldi honetarako behar den material guztia, alde batetik bestera mugitzeko jendea behar da. Gurpildun aulki denak Bera Bera klubari eskatutakoak izango dira, beraz, Donostiatik ekarri beharko dira.

Honez gain, baloiak eta saskibaloiko saskiak ekartzeko, Beasaingo BKL saskibaloia taldeari eskatuko denez, Donostiatik gurpildun aulkiak ekarriko dituen garraiolaria bezala, beste bat beharko da saskiak eta baloiak ekartzeko eta honekin batera, mahai eta aulkiak. Gauzak horrela, bi garraiolari beharko dira.

| JARDUERAK | PERTSONA KOPURUA | |
|----------------------------------|------------------|---------------|
| | BOLUNTARIOAK | PROFESIONALAK |
| Garraiolariak | 0 | 2 |
| Erakustaldirako jokalaria | 4 | 0 |
| Arduradunak | 7 | 0 |

Aipatu beharra dago, erakustaldirako jokalaria, Gurpildun Aulkiko Saskibaloian profesionalak direla, baina kasu honetan, boluntario gisa parte hartzen dutenez, boluntarioen zutabeetan sartzen dira.

5.3.4.2. Baliabide materialak

Baliabide materialei dagokionez, hau da behar izango den materialaren laburpena:

| MATERIALA | KOPURUA |
|----------------------------------|---------|
| Saskibaloiko saskiak | 3 |
| Saskibaloiko baloiak | 8 |
| Mahaiak | 2 |
| Aulkiak | 12 |
| Gurpildun aulkiak | 17 |
| Arauak dakartzan paperak | 18 |
| Arauak erakusteko pantaila | 1 |
| Arduradunen nikiak | 7 |
| Kluben helbideentzako papertxoak | 100 |
| Garraiorako furgoneta | 1 |
| Garraiorako kamioia | 1 |
| USB | 1 |
| Konoak | 5 |
| Txilibituak | 2 |

Ekitaldi hau aurrera atera ahal izateko, hiru saski behar izango dira, bi hirugarren postarako (partida guinea) eta beste bat bigarren postarako (praktika guinea).

Honekin batera, saskibaloiko baloiak ere egongo dira. Kasu honetan, 8 baloi behar izango dira. Kopuru honen arrazoia zera da, bigarren postan egiten den zirkuituan, pausuak ekiditeko bi ariketetarako bi baloi beharko dira, bat bakoitzean, honez gain, blokeo eta jaurtiketen aldean beste bi gutxienez ere bai eta azkenik, hirugarren postan, partidak jokatzeko, momenturen batean bi partida aldi berean jolasten egongo direla eta bi baloi beharko dira. Guztira,

behar beharrezkoak diren sei baloi kontatzen dira, baina baloi hauei edozer gauza gertatzen zaiela eta, hala nola, zulatu edo bestelakoak, bada ez bada, bi gehiago eramango dira.

Hauetz gain, saskibaloitari zuzenki lotuak dauden gurpildun aulkien beharra dago. Aipatu bezala, guztira 16 izango dira, horietatik 4 erakustaldia egitera datozenen jokalarienak izango direlarik. Aulki hauek, jokalariei, gainontzeko aulkiak bezala, furgonetan eramango dira eta jokalarien baimena izanik, parte hartzaileek hauekin jolasteko aukera izango dute.

Gurpildun aulkien banaketa eta kontaketa, ondorengo honen ondorioz izango da. Praktika gunean pausuak ekiditeko ariketetarako, baloiak bezala, bi aulki egongo dira, ariketa bakoitzean bat. Ondoren, zirkuituaren bigarren atalean, hau da, praktikaren guneko blokeo eta jaurtiketen postan, aldi berean bi hirukotek jolasteko aukera izango dutenez, guztira 6 aulki behar izango dira. Azkenik, partida gunean, 2x2 partidak aldi berean bi partida jolastuko direnez, 8 aulki behar izango dira, guztira 16 izanik eta nola ez, 17garren bat ere eramango da, aulkiren batek arazorik ematen badu ere, aulki bat gutxiagorekin ez geratzeko helburuarekin.

Saskibaloitari loturiko materialaz gain, erabilitako antolakuntza dela eta, beste material batzuk ere behar dira ekitaldia aurrera eraman ahal izateko.

Material hori besteak beste, mahaiak eta aulkiak dira. Informazio gunerako, mahai eta aulki batzuk erabiliko dira informazioa eserita eta eroso irakurri ahal izateko. Horretarako, jendearentzat, bi mahai eta 12 aulki prest egongo dira. Honez gain, arauak era simple batean azaltzen dituen paperak plastifikaturik bertan egongo dira. Azalduko diren arauak 6 dira, baina hiru aldiz errepikatuta egongo direnez, guztira 18 paper egongo dira. Honen helburua, aldi berean ahalik eta jende gehienak irakurri ditzan.

Honekin batera, posta honetan, pantaila txiki bat egongo da, zeinetan, arau guztiak etengabe bertan azalduko diren. Pantaila hau, etxetik eramandako ordenagailuaren pantaila bat izango da, bertan usb bat sartu eta gehiagoren beharrik ez da izango.

Honetaz a parte, praktika gunerako bost kono behar izango dira pausuak ekiditeko ariketak aurrera atera ahal izateko. Kono hauek, BKL saskibaloit taldeak utzitakoak izango dira, baita txilibituak ere, guztira, bi izango direlarik.

Antolakuntzan arituko diren arduradunek, bakoitzak, ekitaldiko nikia izango du. Honela, laguntza eske dabiltzanak badakite nora jo beraien arazo edo dudak argitzeko. Horretarako, 7 niki behar izango dira, 7 arduradun boluntarioen parte hartzea espero baita.

Honez gain, materiala ekitaldiko gunera garraiatzea beharrezkoa da, ez baita Beasaingo plazan materiala aurkitzen. Beraz, Donostiatik lorturiko gurgildun aulkiak, Beasainera ekartzeko, furgoneta baten beharra dago eta honez gain, Beasaingo BKL saskibaloit taldeak utzitako hiru saskibaloitko saski eta baloiak kiroldegitik plazara eramateko beharrezkoa izango litzateke beste kamioi bat, gainera, mahai eta aulkiak kiroldegitik plazara garraiatzeko ere, kamioi hau aprobetxatuko da. Guztira, bi kamioi behar izango dira.

Amaitzeko, Euskal Herriko klubez eta orokorrean, GASari buruz interesatuak daudenentzat, postak amaitzen dituenak, klubei buruzko informazio dakarren papertxoak jasotzeko aukera izango du.

5.3.4.3. Baliabide ekonomikoak

Baliabide ekonomikoen kostuei dagokionez, garraiolariak, bi direnez, bakoitzak 35 euro jasoko ditu eta furgonetaren alokairuak, egun erdia 66 euroko kostua izango du. Furgoneta hau, Donostiatik etorriko da, beraz, furgoneta alokatzeko erabiliko den enpresa, "Ruibal, alquiler de furgonetas" izango da.

Kamioiaren kasuan, hiru saskiak, mahaiak, aulkiak, konoak eta baloiak eramateko behar den kamioi handi baten alokairuak 140 euroko kostua izango du.

Honez gain, mahaiak eta aulkiak ere alokatu egingo direnez, kostu bat izango dute, hala nola, mahaiak 40 euro eta aulkiak, 45.

Kostuekin amaitzeko, bi gauza ezberdin inprimatu behar dira. Bata, arauak jasotzen dituzten paperak, guztira, 18 kopia egin behar direnez, 5 euroko kostua ordaintzea tokatuko da eta azkenik, interesatuak dauden ororentzako klubaren informazioa eskuratzeko papertxo inprimatuek, guztira, 15 euro kostatuko dute.

| ARRAZOIA | KOSTUA (€) |
|--|------------|
| Garraiolariak | 70 |
| Furgoneta | 65 |
| Kamioia | 140 |
| Mahaiak | 40 |
| Aulkiak | 45 |
| Paperak inprimatzea | 5 |
| Klubaren informazioa daramatzan papertxoak inprimatzea | 15 |
| GUZTIRA | 380 |

Baliabide ekonomikoen finantziarioari dagokionez, kirol modalitate honek, elbarritasunen bat duten pertsonen parte hartzen duten kirol modalitateetatik famatuena izan arren, diru eskasia izugarria da, beraz, klubak gastuaz arduratzea gehiegi izango litzateke, beraz, bai udaletxe eta bai Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioari diru laguntza eskatuko zaio. Guztira, 380 euro emango dutelarik. Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federakuntzak bietatik diru gehien emango duena izango da, federakuntza honen helburua kirol egokitua bultzatzea baita, guztira, 250 euro hain zuzen ere.

Beasaingo udaletxeak ordea, GKEFtik jasotako finantziazioa eta ekitaldiak suposatzen dituen kostu guztien arteko diferentzia emango du.

| ARRAZOIA | FINANTZIAZIOA (€) |
|--|-------------------|
| Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioaren diru laguntza | 250 |
| Beasaingo udaletxearen diru laguntza | 130 |
| GUZTIRA | 380 |

Gauzak horrela, hurrengo taula honetan agertzen den bezala, ez da irabazirik ez galerarik izango.

| | |
|--|------------|
| Kostuak guztira | 380 € |
| Finantziazioa guztira | 380 € |
| GUZTIRA ORDAINTZEKO GERATZEN DENA | 0 € |

5.4. PROPOSAMENAREN ANALISIA

Aurkeztu den proposamen hau, aberasgarria izan daitekeen proposamena da, batez ere Gorpildun Aulkiko Saskibaloia dituen arazo nagusienak hobetzen dituelako, hala nola, desplazamenduaren beharrik ez eta urritasun funtzionalik izan gabe, kirol modalitate hau praktikatzeko aukera.

Datari dagokionez, 2018ko maiatzaren hasieran ezarri da. Hala ere, data hau probisionala da, izan ere, erakustaldirako eta ekitaldirako orokorrean behar diren arduradunek liga jokoan izango baitute. Horregatik, hurrengo urteko ligako jardunaldi egunak eta atsedeen asteak Espainiako Kirol Egokituko Federazioak ezagutzeko eman arte, probisionala izango da. Hala ere, data zehatza, data honen inguruan izango da.

Proposamen honetan, jarritako adin aniztasunaren parte hartzeko aukerak, adin guztietako jendeak gozatzeko aukera dakar. Honi esker, baliteke, ekitaldi honetaz gain, kirol modalitate hau gehiago praktikatzeko gogoia izatea, horregatik, modalitate honetan dabilzan klubaren informazioa emateak, bide berriak zabal ditzake.

Honez gain, gazte eta umeek, ekitaldi honetan bitzakoarekin, beraien etorkizuna, baliteke, kirol honetara bideratzea, bai jokalaria bezala, baita sustatzaile bezala. Gainera, urritasun funtzionala edo elbarritasunik duenak, errendimenduko Gorpildun Aulkiko Saskibaloiko etorkizuna izateko ametsa posibleaz ohartaraztea.

Hala ere, nahi duen orok parte hartzearen arazoa adin ezberdintasun handiko jokalaria jokatzeko egotea da, diferentzia izugarria egon daitekeelako, bai indar eta bai teknika aldetik.

Honez gain, gerta liteke, goizaren ordu batzuetan, jende kopuru oso txikiak parte hartzea eta dena erraz joatea, baina beste ordu batzuetan, parte hartzaile kopurua handiagoa izango da. Honen ondorioz, gerta liteke posta bakoitzean, txanda iritsi arte itxaroten dauden parte hartzaileak asko izatea, honek aspertzera eraman ditzaketelarik.

Jende gutxiago dagoen momentuetan, bai praktika gunean eta bai partida gunean, arduradun bat baino gehiago egoteari esker, ariketak edo partidak burutzeko jendea behar izanez gero, parte hartzaileek, egoera erreal horiek bizitu ahal izateko aukera izan dezaten, arduradunak jolastera sartu daitezke, itxaronaldia ez luzatzeko.

Posta bakoitzean ezarritako denbora, ahalik eta egokiena izaten saiatu da, posta bakoitzaren funtzioa ahalik eta hobekien bete ahal izateko. Baina gerta liteke, batzuentzat luzeegia izatea eta denbora gehiegi itxaroten egotea, posta bakoitzeko denbora betetzea beharrezkoa baita.

Aspergarritasuna eta abar alde batera utziaz, ekitaldi hau posta ezberdinetan banatua egotearekin, parte hartzaileek tranpak egitearen arriskua dago, gehien gustatzen zaien jarduera azkeneko postan aurkitzen baita, partida gunea. Hau ekiditeko, ekitaldian, irtenbide polita ezarri da. Arduradunek, parte hartzaile bakoitzari paper batean bere firma eman eta hurrengo postako arduradun batek posta hasi baino lehen jaso egingo ditu, berrerabilpena ekidituz.

Materialari dagokionez, gerta liteke gorpildun aulki kopurua lortzea oso zaila izatea. Salto Bera Berak uzteko hitzartua dago, baina gerta liteke behar diren denak azkeneko momentuan eskuragarri ez izatea eta beste batzuk lortzeko zaila izatea.

Honek, beste batzuk lortzea behartzen du eta utzitakoak ez badira, asko garestitu daiteke ekitaldiaren kostua.

Honekin batera, lortzen diren gurpildun aulkiak, ondo zaintzea oso garrantzitsua da. Aulki berezi hauek, jokalariek beraien partidetarako, entrenamenduetarako eta garrantzitsuena dena, Gurpildun Aulkiko Saskibaloian jokatzeko, beraien hankak diren materiala baitira. Gauzak horrela, jendeak nola tratatzen dituen, une oro kontrolatzen egon beharko da.

Amaitzeko, aipatu beharra dago, ekitaldiak ez dituela berez ordaindu beharreko material asko, gehiena, saskibaloia klubek utzitakoa baita, beraz, honi esker, ekitaldiaren kostua espero baina merkeagoa izango da, hala ere, gastu guzti hauek aurrera eraman ahal izateko dirurik ez dago, ezta klubek aldetik ere. Beraz, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioari esker eta baita Beasaingo udaletxeari esker, ekitaldiaren gastu guztiak aurrera eramaten lagunduko dute.

5.5. PROPOSAMENAREN ONDORIOAK

Aipaturiko arazo horiei aurre egiteko irtenbideak badaudela argi dago. Arazoak ondorioztatuta, konponbideak aurkitu dira.

Adinaren diferentzia handia dela eta, aldi berean bi partida jokatzen direnez, partidetakoa taldeak, ahalik eta konpentsatuenak izaten saiatuko da. Lortu ez bada, zaharrenei eta erraztasun handienak dituztenei, urritasun funtzional bat ezarriko zaie.

Honez gain, jendea ariketa bakoitzean itxaroten denbora asko ez egoteko, ariketa behin egiten denean, hurrengoaren txanda izango da. Honela, **dinamikoagoa** izatea lortu dezakegu.

Data zehatzari dagokionez, Espainiako Kirol Egokituko Federazioak, egutegia ateratzen duenean ziurtatuko da, maiatzaren hasierako daten ahalik eta gertutasun handiena izaten saiatuz.

Gurpildun aulkien kasuan, hauen garrantziaz kontzientziatzea oso garrantzitsua izango da. Lehenengo postan, hau da, informazio gunean, gurpildun

aulkien garrantziaz kontzientziaz ahaleginduko dira, jokalarientzat duten garrantzia azaleraziz.

Amaitzeko, Salto Bera Berak, azkeneko momentuan, **behar adina gurpildun aulki** uzteko aukerarik izango ez balu, falta izango ziren aulkiak, Zuzenak K.E.kin kontaktuan jarri eta hauei eskatuko zaizkie. Hauek ekartzeko garraibidea ordea, kasu honetan, bertatik etorriko den baten ardurapean geratuko delarik.

Ikus daitekeen bezala, ekitaldi honen alde onak eta txarrak ateratzen dira. Hala ere, arazoei erreparatuz, hauek erraz zuzentzeko aukera ematen dute eta garrantzitsuena dena, momentuan irtenbideak aurkitzeko errazak dira. Gainera, ekitaldian parte hartuko duten arduradunak, arazo hauez ohartarazita egongo dira, alde aurretik egingo diren antolaketa bileretan, izan ditzaketen arazoei buruz jakinen gainean jarriko baitzaie eta horrez gain, arazo hauei aurre egiteko irtenbideak jada eman egingo zaizkie, ekitaldia ahalik eta dinamikoena izateko.

6. BIBLIOGRAFIA

ARTIKULU ZIENTIFIKOAK

Ferro, A., Villacieros, J. eta Pére-Tejero, J. (2016). Sprint Performance of Elite Wheelchair Basketball Players: Applicability of a Lase System for Describing the Velocity Curve. *Human Kinetics*, 33, 358-373.

Gil, S.M., Yanci, J., Otero, M., Olasagasti, J., Badiola, A., Bidaurrazaga-Letona, I., Iturricastillo, A. eta Granados, C. (uztailak 10, 2015). The Functional Classification and Field Test Performance in Wheelchair Basketball Players. *Journal of Human Kinetics*, 46, 219-230.

Hindawi, O.S., Orabi, S., Al Arjan, J., Judge, L. W., Cottingham, M. eta Bellar, D.,M. (2013). Offensive tactical thinking level of wheelchair basketball players in Arab countries. *European Journal of Sport Science*, 13 (6), 622-629. doi: <http://dx.doi.org/10.1080/17461391.2013.771383>.

Iturricastillo, A., Granados, C. eta Yanci, J. (urtarrilak 12, 2015). Changes in Body Composition and Physical Performance in Wheelchair Basketball Players During a Competitive Season. *Journal of Human Kinetics*, 48, 157-165. doi: [10.1515/hukin-2015-0102](http://dx.doi.org/10.1515/hukin-2015-0102)

Iturricastillo, A., Yanci, J., Barrenetxea, I. eta Granados, C. (2016). Análisis de la intensidad del juego durante los partidos de play-off en jugadores de baloncesto en silla de ruedas. *Petos*, 30, 54-88.

Milanese, C., Zancanaro, C eta Cavedon, V. (azaroak 25, 2015). Physique and Performance of Young Wheelchair Basketball Players in Relation with Classification. *Plos One*, 10(11). doi: [10.1371/journal.pone.0143621](http://dx.doi.org/10.1371/journal.pone.0143621)

Szyman, R. J., Ito, G., Garner, D., Muñoz, B. eta Reed, J. (2014). Ball Size and Distance as Constraints in Prep Wheelchair Basketball Free Throws. *Palaestra*, 28(3), 22-25.

Vanlandewijck, Y.C., Evaggelinou, C., Daly, D. D., Van Houtte, S. Verellen, J., Aspeslagh, V., Hendrickx, R., Piessens, T. eta Zwakhoven (2003). Proportionality in Wheelchair Basketball Classification. *Human Kinetics Publisher, 20*, 369-380.

Vanlandewijck, Y. C., Evaggelinou, C., Daly, D. J., Verellen, J., Van Houtte, S., Aspeslagh, V., Hendrickx, R., Piessens, T., eta Zwakhoven, B. (2004). The relationship between functional potential and field performance in elite female wheelchair basketball players. *Journal of Sports Sciences, 22*, 668-675.

INTERNETETIK ATERATAKO INFORMAZIOA

Basket BSR, Espainiako Elbarritasun Fisikoko Pertsonen Kirolaren Federazioa: <http://bsr.feddf.es/>

Bidaideak Bilbao BSR: <http://www.bilbaobsr.com/>

ELKARRIZKETAK

Arratibel, I., 2017

Costas de Miranda, B., 2017

Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa, GKEF. 2017

Iturricastillo, A., 2017

López Garín, N., 2017

Olasagasti Ibargoiien, J., 2017